


Urdiaini udan bizia ematen dioten igerilekuek 50 urte beteko dituzte eta ospatu egingen dute / 5

Nafarroako eta Euskadiko Erlojupeko Txapelketa hartuko du igandean Iturmendik / 19



Ziordiko Amarauna, komentua zen eraikinean proiektu autogestionatua lantzen ari dira / 8-9



% 52,63 birziklatze tasa dugu

Urtebetean 1,17 puntu igo da / 2-3

HTXROCK 2017 musika baino gehiago

OSTEGUNA 27 JUEVES

18:30 Hasiera ekitaldia (Herriko plazan)
Acto de apertura (Plaza del pueblo)

19:00 Kalea Kalea marxia omolera
Final de la marcha Kalea Kalea

19:15 SAKATU ELEKTROTARANGA

OSTIRALA 28 VIERNES

08:30 Mendi martxa: Analar-Arangun 968m (Herriko plazan)
Marcha montaña: Analar-Arangun 968m (Plaza del pueblo)

12:00 HITZALDIA: Etxerat eta Presa eta Senideen Aideko Herri Ekimenak (Kultur etxean)
CHARLA: Etxerat y distintos movimientos populares en favor de presos y familiares (Casa de cultura)

19:00 TTX ELEKTROTARANGA

LARUNBATA 29 SÁBADO

08:30 Mendi martxa: Berriain 1.494m (Herriko plazan)
Marcha montaña: Berriain 1.494m (Plaza del pueblo)

10:00 Graffiti erakustaldia egunean zehar Gaztetxe parean
Exhibición de graffiti frente al Gaztetxe

12:00 HITZALDI INTERNAZIONALA: Presa Politikak eta gatazkaren konponbidea.
Colombia, Irlanda, Palestina eta Euskal Herria (Kultur etxean)
CHARLA INTERNACIONAL: Presas políticas y resolución.
Colombia, Irlanda, Palestina y Euskal Herria (Casa de cultura)

19:00 20-20NGOI Perkusio taldea

21:00 20-20NGOI Perkusio taldea

IGANDEA 30 DOMINGO

10:45 Artisanu eta ekialdeko azoka egun osoan zehar (Mikel Arregi Kalea)
Mercado de artesanía y producción local (Calle Mikel Arregi)

11:00 Hour Txokoa Berriain gunean
Talleres (Dindaria), puzeorriak, igerilekuak...
Txokoa para niños y niñas en Berriain
Talleres (dindaria), hinchables, piscinas...

13:00 BERIAIN GUNEA

nahikoa da... ETXERA

DIASPORAZAREN GURKORRAK ERITZOLAI NAZIONALA

14:00 Herri bazkaria plazan
Comida popular en la plaza

15:00 Irriren Lagunak (NAIZ Gunean)
Euskararen topadak ikusizuna

% 52,63ko birziklapen tasa izan dugu 2016an

2016an sortutako 9.291.921,78 kilo hondakinetatik 5.051,721,78 gaikako bilketaren bidez jaso da. 1,17 puntu igo da birziklatzea urtebetean. 20.255 sakandar bakoitzak 458,74 kilo hondakin sortu eta 249,4 birziklatzen ditu batez beste

SAKANA
Sakandarrok 2016an 2015ean baino 223.159,46 kilo zabor gehiago sortu genituen, 2,46 puntuko igoera. Aldi berean gehiago birziklatu edo konpostatu genuen ere, 384.324,46 kilo hain zuzen ere; 8,23 puntu gehiago. Europako Batasunak zehaztu du 2.020 urterako hondakinen erdia birziklatu behar dela. Sakanak dagoeneko % 52,63ko birziklatze tasa du.

Eta kopuru hori handitu eginen da ibarreko populazioaren % 47,68 diren Altsasu (7.471 biztanle) eta Irurtzun (2.187 biztanle) egungo bilketa handitzen dutenean. Izan ere, bi herrien artean Sakanan sortzen diren 4.240.200 errefusa tonen % 67,73 sortzen dute. Urratsak eman dituzte: Altsasuk dagoeneko Sakanako Mankomunitatearekin akordioa du materia organikoa jasotzeko 5. edukiontzia jartzeko (informazioa 900 730 450 doako telefonoan). Irurtzunen, berriz, 2015etik 110 etxeetako materia organikoa kudeatzen ari dira zortzi auzo-konpostagailuren bidez. Antza gehiago jarriko dituzte.

Sistemak

Sakanako Mankomunitateko Hondakinen Zerbitzuak herrie-



Argazkioinaxxx. ARGAZKIJABEAxxx

tan eta industrialdeetan jasotzen ditu hondakinak. Herrietan jasotakoa 8.600.699 tona dira, guztiaren % 92,56 (2015ean baino 0,75 gehiago). Herrietan jasotakoaren % 53,77 da birziklatzen

dena eta % 0,72 berrerabiltzen dena. Industrialdeetan, berriz, 691.22,77 tona hondakin jaso ziren, guztiaren % 7,43. Kopuru horretatik gaika bildutako guztia, %38,41, birziklatu egin zen.

Ibarrean hondakinak biltzeko hiru sistema daude indarrean. Uharte Arakilen, Lakuntzan, Arbizun, Etxarri Aranatzen, Bakaikun, Iturmendin, Urdiainen eta Olatzagutian atez ateko sistema dute eta gaikako bilketa tasa % 78,59koa izan zen 2016an (0,22 puntu gehiago). Arakilek, Irañetak, Arruazuk, Lizarraga-bengoak, Ergoienak eta Ziordiak sistema mistoa dute (ontzi arinak, errefusa eta papera/kartoiarentzako edukiontzia dauka kalean, giltzapetutako etxoletan sartuta, eta materia organikoa derrigorrez auto edo auzokonpostaren bitartez) sistema mistoa dute eta haietan gaikako bilketa tasa % 66,62koa da (3,11 gehiago). Irurtzunen edukiontziekin eta zortzi auzo-konpostagailuarekin hondakinen gaikako bilketa % 42,97koa da (8,22 puntu gehiago) eta Altsasun edukiontziekin eta bi auzo-konpostagailuekin % 27,64koa (0,03 gutxiago). Jakina, gaikako bilketan ere ez dagozkion hondakinak daudenez birziklatze tasa txikiagoa da.

Gaika

Inpropioak: Sakandarrek joan den urtean ez genituen 161.708,85 kilo hondakin behar bezala birziklatu. 2016an jasotako guztiaren % 1,74 da eta 2015ean baino 14.617,35 kilo gutxiago. Sakandar bakoitzak 7,98 kilo desegoki sortu zituen 2016an.

	Jasotakoa	%
Organikoa	6.588,4	%2
Ontzi arinak	93.830,41	%35,86
Botiketari	656	%35
Emaus	59.324	%36,68
Humana	1.310	%0,81

Berrerabilia: Sakanan jasotako hondakin guztietatik % 0,66 berrerabili zen 2016an, 62.219 kilo zehazki, 3,07 kilo biztanleko.

	Jasotakoa	%
Emaus ehunak	2.829	%4,54
Emaus altzariak	16.556	%26,60
Emaus bestelakoak	3.534	%5,67
Humana ehunak	39.300	%63,16

Errefusa: Errefusaren bilketak % 3,66 egin zuen behera 2016an, ibarreko biztanle bakoitzak 209,34 kilo sortuz (7,3 kilo gutxiago). Sakanako errefusaren zati handiena bilketa sistema bereziturik ez duten bi herriek, Irurtzunek eta Altsasuk, sortzen dute.

2013	2014	2015	2016	Aldea 15-16
5.290.602	4.267.207	4.401.365	4.240.200	-161.165 %3,66

	Jasotakoa	%
Altsasu	2.264.890	%53,41
Irurtzun	607.420	%14,32
Atez atekoa	1.035.430	%24,41
Mistoan	297.760	%7,02
Ontzi arinei kendutakoa	9.400	%0,22
Hondakindegira eramana	25.300	%0,59

Ostiralero

SAIOA

9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenetik ostegunera

Metropoli forala

9:00etatik 11:00etara

Esataria: Maider

Gaurko gaiak:

- Ziordiko Amarauna proiektua.
- Ibai Gonzalez arraunlaria.
- Urdiaingo igerilekuen 50. urteurrena.

beleixe

107.3 FM
www.guaixe.eus-en ON LINE

Organikoa: Mank-ek sakandarrek sortutako 2.244.940,06 kilo materia organiko kudeatu zituen 2016an, jasotako guztiaren % 24,16. Guztira 2015ean baino 237.718,84 kilo gehiago (% 11,73ko hazkunde). Herritar bakoitzeko 110,83 kilo (11,89 kilo gehiago).

	Jasotakoa	%
Konposta Altsasun	69.367	%3,08
Konposta Irurtzunen	54.113	%2,41
Konposta mistoan	313.912	%13,98
Konposta atez ate	976.567	%43,50
Organikoa atez ate	364.220	%16,22
Caparrosora eramana	329.420	% 14,67

	Auto-konposta etxe kopurua	Auzo-konposta etxe kopurua
Altsasu	180	54
Irurtzun	52	110
Atez ate	1.070	1.533
Mistoa	501	3
Sakana	1.803	2.626

Ontzi arinak: Joan den urtean jasotako hondakinen % 6,31 ontzi arinak izan ziren; sakandarreko 28,96 kilo, 2015ean baino 4,82 kilo gehiago.

	2013	2014	2015	2016	2015-16 aldea
Bildutakoa	414.710	529.160	558.390	586.630	28.240 %5,05
Kendutakoa*	23.000	35.000	68.100	71.150	3.050 %4,47
Birziklatu**	386.620	479.525	491.486	515.480	23.994 %4,88

*Arbizuko hondakindegian ontziak ez diren eta kendu diren hondakinak.

**Azkoienara birziklatzera bidalitakoa.

	Jasotakoa	%
Altsasu	235.964	%26,73
Irurtzun	53.104	%10,30
Atez atekoa	241.487	%46,84
Mistoan	57.571	%11,16
Industrialdeak	22.722	%4,41

Papera eta kartoia: Sakanan paperaren eta kartoiaren bilketa 2016an jasotako hondakinen %11,4 izan zen. Jasotako guztiaren % 77,08 (816.580,14 kilo) hiri hondakin gisa jaso zen eta gainontzeko % 22,91 (242.759 kilo) industrialdeetan. Sakandar bakoitzak hondakin mota horretako 52,3 kilo sortu genituen, 2015ean baino 0,19 kilo gehiago.

	2013	2014	2015	2016	2015-16 aldea
	935.500	1.004.320	1.058.270	1.059.340	+1.070 +%0,1

	Jasotakoa	%
Altsasu	298.876	28,21
Irurtzun	99.980	9,43
Atez atekoa	348.864	32,93
Mistoan	68.860	6,50
Industrialdeak	242.759	22,91

Beira: Iglu itxurako edukiontzietan eta atez ate jasotako beiraren kopuruak gora egin zuen 2016an eta hondakin guztien % 7,14 izan zen. Sakandar bakoitzak 32,76 kilo beira hondakin sortu genituen joan den

	2013	2014	2015	2016	2015 - 16 aldea
	642.580	669.200	587.455	663.743	+76.288 +%12,98

	Jasotakoa	%
Altsasu	207.892	31,32
Irurtzun	57.827	8,70
Atez atekoa	325.025	48,96
Mistoan	72.999	10,99

Olioia: Sakanan 2016an jasotako hondakinen % 0,15 sukaldean erabilitako olioia izan zen. Aurreko urtean baino 1.596 litro gutxiago jaso ziren. Horrek esan nahi du sakandar bakoitzak 0,7 litro olio birziklatu zituela soilik.

	2013	2014	2015	2016	2015-16 aldea
Bilketa	14.110	15.740	12.576	10.980	-1.596 -%12,68
Garbigunea	5.497	5.407	7.973	3.385	-4.588 -%57,54
Guztira	19.607	21.147	20.549	14.365	-6.184 -%30,09

	Jasotakoa	%
Altsasu	8.790	26,88
Irurtzun	1.485	10,88
Atez atekoa	4.670	82,50
Mistoan	1.085	7,20
Garbigunea	8.885	28,56

Datu orokorrak

Birziklatze tasa

	2012	2013	2014	2015	2016
Errefusa	6.739.840	5.290.602	4.267.207	4.401.365	4.240.200
Gaika bilduta	2.108.432	3.138.351	4.392.874	4.667.397	5.051.721
Guztira	8.848.272	8.428.953	9.068.762	9.068.762	9.291.921
Birziklatze tasa	%23,83,23	%37,23	%51,46	%51,46	%52,63

Gaikako bilketaren bilakaera sistemaka

Eredua/urtea	2012	2013	2014	2015	2016
Altsasu	23,69	25,40	27,61	27,67	27,64
Irurtzun	23,69	27,79	29,21	34,75	42,97
Mistoa	23,69	55,93	61,67	63,51	66,62
Atez-ate	23,69	73,00	80,49	78,35	78,59
Sakana	23,69	39,71	50,87	51,52	55,65

*2013ko erdialdean ezarri ziren hondakin bilketa sistema berriak. Ezarpenaren aurreko eta ondorengo urte hartako emaitzak jasotzen dira taulan.

	Gaikako bilketa tasa (%)	Errefusa (%)	Organikoa (kilo/etxe/urteko)	Errefusa (kilo/etxe/urteko)
Altsasu	27,64	72,36	64,89	569,451
Irurtzun	42,97	57,03	96,68	544,16
Atez-ate	78,59	21,41	316,52	177,43
Mistoa	66,62	33,38	273,37	258,279



ASTEKOA

XABIER REPARAZ EXTRAMIANA

Udan lantzeko

Udako garaia bete-betean. Opor eta lasaitasun egun batzuk izateko aukera. Herriko festetan murgildu eta atera beharrekoak atera baldin baditugu, iritsi zaigu gogoetarako garaia. Garai batean irakasleek udan hobetu beharreko zenbait aspektu seinalatzen zizkiguten, esaterako matematikak, ingelesa edo kimika. Nik badut udan lantzeko gogokoen dudak bai. Bat-batekotasunaren eta informazioaren gure gizarte postmoderno honetan beharrezkotzat ikusten dut izpiritu kritikoa lantzeko parada hartzea. Atzera begiratzean iragana ikuspuntu desberdinek sortutako irudi artifiziala dela ohartzen gara. Benetakoa eta faltsua desberdintzea zaila egiten zaigu bizi ez ditugun errealitateei buruz hitz egiten digutenean. Entzun nahi duguna entzuteak lasaitasuna ematen digu, egia gordinak inoiz emanen ez ligukeena. Horregatik, ezinbesteko egiten zaigu iradokitzen zaigunari kritika egiteko gaitasuna izatea. Esaten diguten hura, alegia, ezin dugula geure buruari galde egin gabe sinistu. Horregatik bidaiatu eta irakurri ohi dugun urte sasoi honetan paregabeko aukera dugu errealitate desberdinak bizi eta sentitzeko. Konparaketa soilak gure burmuinari erakusten dio, gauzek ez dutela beti esaten diguten modukoak izan behar, eta esaten diguten haren intentzioez ohartarazten digu manipulazioen aurrean. Ezagutu eta alderatu, ikusi eta ikasi. Gezurretan ari zaiguna harrapatzeko tresnarik bikainena dugu hau, uda sasoiari ongarririk beharrekoa, geroago astirik ez baitugu izanen. Ongi pasa oporretan! kontrolatu ez direlako eta mutilak desenkusatuak justifikatuak, kontrolatu ezin direlako.

HARA ZER DIEN

Laguntza Produktuen Zentroaz

SAKANAKO GIZARTE ZERBITZUAK

Pertsonen Autonomia eta Garapenerako Nafarroako Agentziak sustatuta, zerbitzu berri bat dugu Iruñean, "Laguntza Produktuen Zentroa" delakoa. Bere xede nagusia da pertsonen autonomia sustatzea, etxean norberaren eguneroko lanak erraztea eta irisgarritasunaren hobekuntzak bultzatzea.

Horretarako San Juan auzoko Cuesta de la Reina 3an, etxibizitza egokitu baten simulazioa dago eta hainbat produkturen erakusketa. Bertan langileek ematen dituzten zerbitzuak honakoak dira:

-Merkatuan dauden laguntza produktuei buruzko informazioa, erakusketa eta aholkularitza (garabiak, gurgildun aukerak...), baita etxea egokitzeko ere

(komunak moldatu, traba arkitektonikoak kentzeko...). Zalantzak izanez gero, bertan hainbat produktu ikusi eta probatu daitezke, eta egin nahi daitezkeen obren aurrean aholkularitza zehatza jaso.

Esan beharra dago merkatuak ez duela inongo merkatal zantzurik; ez da ezer saltzen ezta marken gomendiorik ematen.

-Produktu horien erakusketaz gain, produktuak probatu eta beraiekin trebatzeko aukera badago ere.

-Langileei informazioa (autonomia ez dutenekin lan egiten duten langile orori, baina baita berritze lan obrak egiten dituzten kisuagileei ere, adibidez zaharberritzeak edo egokipenak egiteko).

-Trabei eta irisgarritasunari buruzko formazioa.

-Edozein kontsulta egiteko aukera.

Beraz, tokian bertan informazio zehatza jasotzeko aukera paregabea da eskaintzen dena.

Oso egokia, esaterako, norberaren autonomia gutxitzen ari dela ohartzean, obra egoki bat egiteko komunean, argiztapen kontuetan... Izan ere, laguntza hauek nor bere kabuz moldatzen lagun dezakete.

Harreta astelehenetik ostiralera da, 12:00etatik 14:00etara (beharra edo aukerarik badago, aurretik hitzordua hartuta beste ordutegi batean). Harremanetan jartzeko aukerak bertara joateaz gain, 848 425 055 telefonora hots egitea edo centrosproductosde apoyo@navarra.es postara idaztea dira.

BARRUTIK KANPORA

Ekintzailtza: zer da ekintzailtza?

SAKANTZEN SAREA

Sakantzen Sarea sortu zen unetik, argi geneukan proiektu berriak martxan jartzen laguntzea zela helburua. Sakana momentu gogor batean zegoen eta gure asmoa, talentua zuen edonori bere proiektu propioa martxan jartzen laguntzea zen.

Azken urte hauetan ekintzailtza asko egin du gora. Bartzelona, Madril, Bilbo edota Iruñea bezalako

hiriburuetara joanez gero, ekintzailtza erakartzeko espazioak, inkubazio eta azelerazio programak, entitate publiko zein pribatuak zein inbertsoreak aurkitzea erraza da. Sakantzen Saretik argi daukagu ekintzailtza ez dela bakarrik enpresa-ekimen bat sortzea.

Baizik eta, bizitzeko modu bat da eta pertsona bakoitzaren jarrera zein gaitasunekin erabat lotuta dago.

Gero eta gehiago entzuten ditugu "edonor izan daiteke ekintzailtza", "enpresa bat sortzea ez da zaila" edota "nire egoeratik ateratzeko irtenbide bakarra da" bezalako mezu okerrak. Mezu horiek guztiak ez dira zuzenak.

Enpresa bat martxan jarri ahal izateko baliabide ekonomiko handiak behar dira. Enpresa motaren arabera izan da inbertsioa ere.

Kostu aldetik, adibidez, zerbitzuak eskainiko dituen enpresa baten sorrera

merkeagoa da, produktu konkretu bat sortuko duen proiektu bat martxan jartzea baino.

Proiektu berri bat martxan jarri nahi duen edonor, Sakantzen Sarea, Sakanako Garapen Agentzia zein Cederna Garalur bezalako entitateekin harremanetan jar daiteke. Nafarroako Gobernuak ere baditu ekintzailtzei laguntzeko mekanismoak. Adibidez, CEIN entitatea. Edota, inbertsioa behar izanez gero, SODENA.

Aurreko astean jakin genuen Altsasuko Udalak ekintzailtza sustatzeko laguntzak martxan jarri dituela. Kasu honetan, langabezia dagoen edonori zuzendua dago. 250-300 bitarteko laguntza ekonomikoa da. Bertan gabiltzanok badakigu laguntza hauek eskasak direla. Benetako apostu bat egin ala ez erabakitzeke ez da ezinbestekoa izango, baina hobe laguntza hauek izatea ezer izatea baino ez.

Jarrai dezagun mekanismo berriak sortzen.

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Administrazioa:
Gixane Andueza Goikoetxea
admin@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Kolaboratzaileak:
Eñaut Agirrebengoa Apaolaza
Rebeka Mendoza
Erkuden Ruiz Barroso
Zuzentzailea: Idoloia Artieda
Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kiriolak@guaixe.eus
Maketatzailea:
Ruben Imaz Alcaide
maketazioa@guaixe.eus

Publikitateak:

María Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus

eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107
618 882 675
661 523 245



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Igerilekuek 50 urte betetzen dituzte. Argazkian, hamarkada baztuk atzera eginez, garaiko gazte urdiaindarrak. UTZITAKOIA

Herriko udako bizia Urriztin

Aitziber elkarteak Urdaingo igerilekuen 50. urteurrena ospatuko du aurten. Aitziber egunean, 13:30ean, brindisa egingen dute. Sarabera irteera "ilustratua" antolatu dute agorrilaren 27rako eta elkarte eta igerilekuei buruzko dokumentala egiten ari dira

Urdiain ERKUDEN RUIZ BARROSO

Urdaingo Urriztin daude herriko igerilekuak. Haritza, pago eta gaztainondoen artean bainua hartzeko, kafe bat edo eguzkia hartzeko leku "paregabea" dela diote Arantza Flores eta Maite Aldaz Aitziber elkarteak. Urdaingo udako bizitzaren parte garrantzitsua. Aurten haien 50 urteurrena ospatuko dute.

1967ko agorrilaren 13an mustu zituzten Urdaingo igerilekuak. Aurretik, maiatzaren 1ean, Aitziber elkarteak sortu zuten. Bi historiak parean joan ziren: "gau-

za asko deskubritzen ari gara. Ezagutzen ez genuen historia azalarazten". Elkartearen eta igerilekuen 50. urteurren ospakizunak prestatzeko taldea sortu dute eta Flores eta Aldaz kide dira. Tartean, bazkide egunean, lastailaren 7an, dokumental bat aurkeztuko dute.

Magotteaux enpresa kokatzeko eremua lautzeko lurra behar zuten eta Urriztitik lortu zuten. Husteak putzu handi bat sortu zuten, eta urez betetzen zenean, gazteak bainatzera joaten ziren. Elkargunea bihurtu zen, Floresek

eta Aldazek kontatu duten bezala. "Garai hartan elkarteak sortu zenez, zerbait egin behar zela pentsatu, eta igerilekuak egitea erabaki zuten".

Auzolana

Sakanako lehenengo igerilekua izan zen, baita Nafarroako lehenetarikoa ere. Sakanan elkarte batek kudeatzen duen igerileku bakarra da gaur egun Urdaingoa. Hortaz, elkartean bi zati daude: alde batetik "etxeaz" arduratzen den taldea eta, bestetik, igerilekuaren taldea. Elkarteko kuotan,

aldiz, biak sartzen dira. "Ondorioz, bazkideak doan sartzen gara igerilekuetan". Gainera, auzolanean egiten dira lan gehienak. "Igerilekuak alokatzen dira, enkantearen bidez. Baina mantenua auzolanean egiten dugu. Talde bat osatzen da". Ireki aurretik ere auzolanean igerilekuak prestatzen dituzte: "Igerilekuak hustu eta garbitu, taberna garbitu...". Udan talde bat funtzionamenduz arduratzen da, araztegiak eta beste behar bezala lan egiten dutela ziurtatzen du.

Auzolanean kudeatzen hasi ziren duela 50 urte igerilekuak. "Lehenengo auzolana sarrerak kobratzea izan zela esan zigun batek: 1967ko agorrilaren 14an". Orduan, batek sarrerak kobratzen zituen, beste bat tabernan aritzen zen... Gaur egun, enkantearen bidez alokatzen dituzte igerilekuak. "Deialdi bat egiten da eta tarte bat uzten da proposamenak egiteko. Bat bada hori hartzen da. Asko badaude juntak erabaki behar du. Ez da bakarrik diru kopurua kontuan hartzen; herrikoak diren edo ez, zein den haien proposamena...". Azken urteetan alokairuan jartzeko arazo gehiago daudela aitortu dute: "lehen, gu gazteak ginenean-eta, jende gazteak hartzen zuten, udan dirua irabazi nahi zuten ikasleek, eta abarrek. 1970ko hamarkadan familiek ere hartu izan zuten. Langabezia gelditu eta igerilekuak alokatzen zituzten".

Aurten lau pertsonak alokatu dituzte igerilekuak: Jon, Barri, Natalia eta Anak. Aurreneko aldia da Barri altsasuarrak igerilekuak alokatzen dituela. Joni laguntzeko asmoz alokatu omen ditu. "Jon urdiaindarra da eta esan zidan jendea behar zutela igerilekuak alokatzeko. Hasieran asteburuetan lagunduko niola esan, eta uda osoa gotea erabaki dut". Tabernaren kudeaketaz arduratzen dira gehienbat, baita sarreraren txartelak kobratzeaz ere. Tabernan menuak ematen dituzte, pintxoak, eta "bezeroak nahi duen guztia". "Ahoz aho jendea konturatzen ari da bazkariak eta afariak ematen ditu-

gula, eta geroz eta jende gehiago dator". Leku izugarri polita dela dio Barri, "magikoa". Eguraldiak laguntzen duenean igerilekuak betetzen direla dio. "Esperientzia polita izaten ari da".

Mende erdia

Urdaingo igerilekuak mustu zituztenetik "zertxobait aldatu" direla diote Floresek eta Aldazek. Tranpolina eta toboganak zeuden igerilekuetan. Igerileku txikian hiru tobogan omen zeuden ere. Gainera, orain baino sakonera handiagoa zuela esan dute. "U antzeko bat egiten zuten eta erdian bi metro inguruko sakonera zuten". Segurtasun kontuengatik tranpolina eta toboganak kendu behar izan zituzten. "Tranpolinetik eta toboganetatik jaisten eta igotzen aritzen ginen, baina, antza, ez ziren seguruak".

"Araudiak askotan aldatzen dituzte, eta elkarteak noizbehin-ka mantenu lanak egin behar ditu. Batzuetan badirudi aurretik kendu duguna berriz jarri behar dugula". Juntan, igerilekuen gaiak "urduri" xamar jartzen dietela aitortu dute. "Igerilekuei buruz hitz egin behar dugunean esaten dugu: sorpresa! Ea zer tokatzen den orain". Berrikuntzak egiteko azken urteetan elkarteak kuotaz gainera diru gehiago ordaindu behar izan dutela azaldu dute.

Araudi berriak igerilekuetan eskatzen dituen azken berrikuntzak egiteko Urdaingo Udalak 30.000 euro aurreikusitako diru aurrekontuetan. "Egoera konplikatu bat da igerilekuak bizi duena". "Iritsi da une bat non, edo ordaintzen dugun, edo ixten dugun. Gainera, elkartearen junta bi urtetik behin aldatzen denez, gauzak moteltzen direla dirudi". Baina, ez dute ixten utziko. "Aberasgarria da herriarendako. Eguraldi ona egiten duenean ez dago inor herrian, jende guztia hemen dago: kafe bat hartzen, inguruan paseo bat ematen eta gero bainu bat hartzen...". Urdaindarrak ez ezik, inguruko herrietako jendea ere hurbiltzen da igerilekuetara, baita kanpoko jendea ere.

Osorik: www.guaixe.eus



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor
SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Hatortxu Rockeko Beriain gunearen sarrera. Lanak abiadura bizian doaz eta dagoeneko beste itxura bat izango du guneak.

Jaialdi erraldoia, behar erraldoiak

Marka guztiak apurtzeko bidean da Hatortxu Rock 20. Lau egunetan zehar 84 taldek joko dute oholtza gainean. Antolatzaileek 6.718 boluntarioren sostengua eduki nahi dute. Momentuz, 5.000 inguru lortu dituzte

E Agirrebengoa Apaolaza LAKUNTZA Badator Hatortxu Rocken hogeigarren edizioa. Hasi da atzerako kontaketa. Datorren ostegunean, garilak 27. hasiko da Euskal Herriak inoiz ezagutu duen elkartasun jaialdirik handiena, eta igandera arte iraunen da. Duela hemezortzi urte jarri zen abian Hatortxu Rock, euskal presoen dispersioa eta urrutzea salatu, eta presoei eta beren senideei elkartasuna adierazteko. Dispersio politikak eta honen eragindako kalteek bere horretan diraute gaur egun, eta aurtengo edizioa mugarri izatea nahi dute antolatzaileek. Beren esanetan, beharrak “erraldoiak” dira; hori dela-eta, Hatortxu Rock 20 ere erraldoia izatea deliberatu dute.

Aurtengo jaialdiak duela zortzi urte izandako egoitza bera izango du: Lakuntza. Orduko

hartan Lakuntzako herriak emandako erantzunak arrastoa utzi zuen antolatzaileengan, eta, beren hitzetan, ez dute zalantzarik izan hogeigarren edizioko jaialdi berezia ere bertan atontzeko. Erronka handia da, milaka lagun gerturatuko direlako 84 kontzertu eskainiko dituen lau eguneko ekitaldiaz gozatzen. Dena behar bezala irten dadin, 6.718 boluntario lortu nahi dituzte antolatzaileek. Erraldoia izango da jaialdia, eta auzolana ere halakoxea izatea nahi dute. Dagoeneko 5.000 lortu dituzte, eta datozen egunetan kopuru hori gizontzen segitu nahi dute, 6.718ko zifrara iritsi arte.

“Hatortxu Rockentzat ezinbestekoak dira boluntarioak. Hauek muntaiaz, garbiketaz eta beste-lakoez arduratuko dira. Aurtengo Euskal Herriak ezagutu duen elkartasun jaialdirik handiena

izango dela esaten dugunean, benetan sinesten dugu, eta behar dugu jende guztiak hala sentitzea”, adierazi du Hatortxu Rockeko antolatzaileetako bat den Aitor Agirrezabal kazetariak. Bere esanetan, esperientzia “emankorra” da halako jaialdi bat barrutik ezagutzea, eta jendea parte hartzeraz animatu du. “Jendeari sei orduko txandak egitea eskatzen diogu. Hori bai, esperientzia ederra da. Jendea etortzera animatzen dut. Alde batetik, ezinbestekoa delako, baina baita oso polita delako ere horrelako zerbaitetan parte izatea”.

Egunotan buru-belarri dabilta jaialdiaren guneen eta kanpalekuaren muntaketa lanetan. Denera bost gune egonen dira: Beriain gunea, Naiz gunea, Herria gunea, jantokia eta kanpalekua. Gune nagusia Beriain

gunea izango da, duela zortzi urte ospatu zen edizioan bezala. Oraingoan funtzio bera izango du, baina formatu desberdinarekin. Bertan lau eszenatoki egonen dira, bi kanpoan –ilusioa eta elkartasuna deiturikoak–, eta beste bi karpa baten barruan –Hator neska eta Hator mutil deiturikoak–. Naiz gunean, bere aldetik, kafetegi bat egongo da, baita hainbat hitzaldiz gozatzen aukera ere. Agirrezabalen arabera, “lasaiago” egoteko aukera izango dute bertara hurbiltzen direnek.

Kanpaleku “dotorea”

Herria guneari dagokionez, hau Lakuntzako herrigunean egonen da kokaturik. Bertan hitzaldiak eta kontzertuak izango dira, baita Hatortxu Rocken materiala saltzeko denda bat eta jantoki bat ere. Dena den, jantoki nagusia herritik kanpo egongo da, beste guneen ondoan. “Bertan lasai jateko aukera izango da, eta supermerkatu bat eta garagardotegi bat ere egongo dira”, azaldu du Agirrezabalek. Eta ostatu hartzeko alternatibei dagokionez, bertaratutakoek kanpaleku bat izango dute eskuragarri, zeina hiru gunetan egongo den banaturik: lau egunetarako bonoa dutenen kanpalekua batetik, eguneko kanpalekua bestetik, eta, hirugarrenik, autokarabana eta furgoneten aparkalekua. Gune horiek “dotorea” ari direla gelditzen azpimarratu du Agirrezabalek.

Hatortxu Rock jaialdiak irauten duen egunetan kanpalekuak jendez mukuratu beteko dira, milaka pertsona etortzea aurreikusten baita. Askok eta askok Euskal Herriko hamaika zokotatik etorriko dira, baina kanpotik etorriko direnak ere ez dira gutxi izango. Hatortxu Rockeko antolatzaile Agirrezabalen esanetan, jende ugari etorriko da Espainiako Estatuko puntu askotatik; esaterako, Herrialde Katalanetatik, Madrildik, Andaluziatik, Galiziatik edota Asturiasetik. Eta, hori gutxi balitz bezala, Ingalaterra, Suitza eta Belgikan ere saldu omen dituzte sarrerak. “Hori horrela, hainbat irteera egingo ditugu, jendeak Sakana ezagutu dezan. Etorriko direnei gomendatzen diegu ez daitezela denbora guztian barrutian sartuta gelditu”.

8. orrialdean segitzen du

Lakuntzarrak eta langileak pasearekin

Hatortxu Rock 20 jaialdia dela eta, Lakuntzako herria heldu den asteazkenean 18:00etan itxiko da herritarrek ez direnendako. Lakuntzarrek zortzi kontrol puntu izango dituzte herritik atera ahal izateko, eta hiru herrira sartzeko: Sakana fundizioko puntua, gasolindegiko puntua eta hostoak puntua. Soil-soilik pasea duten autoak igaro ahal dira segurtasun puntu horietatik. Paseak, Lakuntzarrek eta bertan lan egiten dutenek lortu ahal izanen dituzte. Dagoeneko jaso dute pasea autoa Lakuntzan erroldatuta dutenek, eta gainontzekoek gaur arte izango dute pasea lortzeko aukera. Lakuntzako udaletxetik pasa behar da horretarako.

Aldez aurreko sarrerak igandera arte

Hatortxu Rock 20ko sarrera alde aurretik erosi nahi duenak igandera arte dauka aukera. Lau egunetarako bonoak 70 euro balio ditu Interneten bidez edota puntu fisikoetan erositzen gero. Txarteldegian 90 euroko salneurria izango du. Bestalde, honako prezioa dute egun bakoitzeko sarrerak: ostegunekoak 30 euro alde aurretik eta 40 txarteldegian, eta ostiralekoak eta larunbatekoak 35 alde aurretik eta 45 txarteldegian. Igandean, ordea, debaldekoa izango da sarrera. Kanpatzeko eskubidea sarrera guztiak ematen dute –egunekoek, egun horretan kanpatzeko; bonoek, egun guztietan kanpatzeko–.

Bizi bizikletan segurtasunez

Errespetuz
ibiltzea
guztion
kontua da



IKUSI ETA BESTEEK IKUS ZAITZATELA

Argi gorri eta zuria nahitaezkoak dira
Erabili arropa argia eta ikusteko modukoa



ERNE JOAN

Debeku dira mugikorra eta entzungailuak
Erne ez joatea arriskutsua da



ERABILI BETI KASKOIA

Bizia salbatzen ahal dizu
16 urtetik beheri, nahitaez erabiltzekoa



ALKOHOLA ETA DROGAK

Bidean, hobe alkoholik eta drogarik gabe
Tasa seguru bakarra, 0,0

AUTOZ

Aurreratzean, errespetatu
segurtasun tartea


Marra etengabea pasa dezakezu
besteak arriskuan jarri gabe

Gidatzean, ez alkoholik ez drogarik



1,5

metro



6. orrialdetik heldu da

Lakuntzara gerturatzeko moduei dagokienez, antolatzaileek garraio publikoa erabiltzera animatu nahi dute jendea. Hor egonen dira autobusa eta tren bezalako alternatibak –anezkak egongo dira Etxarritik Lakuntzara-. Gainera, ostiral eta larunbatean eskuragarri egongo da Jaibusa, ohiko ordutegiarekin. Autoz joan nahi dutenek, apar-kalekuak izango dituzte Arbizu eta Lakuntza artean, bost euro-tara. Lakuntzako herria asteazkenean itxiko dute, 18:00etan, eta hortik aurrera soilik pasea dutenak sartu ahal izanen dira.

Indartsu hasiko da

Euskal Herriko talderik indartsuenak izango dira taula-gai-
nean, baita nazioarteko hainbat talde garrantzitsu ere. “Gustu anitzetarako eskaintza bat dago. 84 taldeak ez dituzu gustuko izango, baina bai horietako asko. Hori da bilatu duguna: estilo eta jatorri desberdineko gauza bereziak eskaintzea”, azaldu du Agirrezabalek. Nolanahi, dena ez dira kontzertuak izango: hainbat hitzaldi interesgarri gozatzeko parada ere egonen da. “Milaka pertsona egongo diren esparru hori aprobeztatu beharra dago gure mezua zabaltzeko”.

Egitaraua lehen egunetik bertatik izango da potoloa. Antolatzailuek 18:30ean egingo dute irekiera ekitaldia, Herria gunean. Hortik aurrera, kontzertu ugari izango dira bertan nahiz Beriain gunean. Herria gunean, Sorkunek eta Tximeletak eskainiko dituzte kontzertuak –19:30ean eta 22:00etan, hurrenez hurren-. Beriain gunean, bere aldetik, honako taldeek joko dute: 20:00etan Leihotikane eta El Sonido de la Metrallak; 21:05ean Willis Drummondek eta Raperos de Emausek; 22:30ean Esne Beltzak eta Estricallak; 23:35ean Soziedad Alkoholikak eta El Diluvik; 00:20etan Narcok eta Skakeitanek; 1:25etan Green Valleyk eta Porco Bravok; 02:30ean Def Con Dosek eta Dakidarriak; eta 03:35ean Strombersek eta Elepunto Vs Jotaxok.

Horrez aparte, 19:00etan Lakuntzako plazara iritsiko da Kalera-Kalera martxa, euskal preso, deportatu eta iheslarien eskubideen aldeko ekimena. Ostegunean Lakuntzara iristean ekitaldia egingo du.

Kalera! martxak Lakuntza du helmuga

Gernika eta Lakuntza zortzi etapetan lotuko dituzte, preso, iheslari eta deportatuen alde

SAKANA

Udako Kalera! martxa atzo abiatu zen Gernikatik. Ibiltariekin zortzi etapetan Lakuntzara arteko bidea egingen dute. Ezker abertzaleko Kalera Kalera dinamika antolatu du euskal preso, iheslari eta deportatuen aldeko martxa. “Gatazkak sortutako errepresaliatu politiko guztiak kaleetara ekartzea” eta “jai giroaz gozatzea” jarri dituzte helburu. Martxako antolatzaileek esan dutenez, “Euskal Herrian, gehienok gatazkaren ondorioak behin betiko konpontzearen alde gaude. Konponketak integrala izan behar du. Kaltetuak kalean egoteko eragozpenek desagertu behar dute. Presoak kalera ateratzea Euskal Herria bakean eta askatasunean bizitzeko ezinbesteko urratsa izango da”.

Martxa Sakanara heldu den ostegunean iritsiko dira. Ibarrik Altsasura autobusez 11:00etan iritsiko dira parte-hartzaileak. Eguerdian Altsasutik Etxarri Aranatzera abiatuko dira, oinez. 14:30ean bazkalduko dute Etxarri eta 16:30ean Lakuntzarantz joko dute ibiltariekin eta han ekitaldia izanen da 19:00etan. Ondoren Hatortxu Rock 20 musika elkartasun jaialdiarekin bat egingen dute.

19 urteko gazte irurtzundarra motor istripuan hila

Foruzaingoak jakinarazi duenez, motorra gidatzen zuen gizonetako ezbehar baten ondoren hil egin zen. Istripua Berribeiteitik Ezkaba mendira igotzen den errepidean gertatu zen. Antza, Artikarantz zihoala motorra bidetik atera eta ezpondaren kontra jo zuen. Trafiko ezbeharrean aurten hildako aurreneko sakandarra da; 2016an hiru.



Ziordiko Amaraunaren ikuspegia. Haiekin harremanetan jartzeko: 679 553 734 edo amaraunaziordi@gmail.com.

Amarauna irekitzeko garaia

Kongregazioarekin adostu ondoren, irailean bi urte beteko dira talde bat Ziordiko komentu zaharra kudeatzera sartu zela. Barne lanean aritu ondoren elkarte eratzeko eta beste, espazioaren eta euren proposamenaren berri emateko garaia iritsi zaie

ZIORDIA


Proiektu autogestionatua garatzen ari da Amarauna Ziordia taldea izen bera duen espazioan. Hain zuzen, Errukiaren Andre Mariaren Ahizpen Kongregazioaren Ziordiko komentua zen eraikinean. Espazioa batetik, eta, bestetik, han gauzatu nahi den proiektua da ere. Jordi eta Cris kideek eman digute euren asmoen berri. Eurek esan digutenez, “pixka bat kasualitatea da gu hemen egotea. Elkarrekin bizitzeko etxea bilatzen ari ginen eta kasualitatez hau eskaini ziguten. Horrekin batera, hainbat jende ezagutu genuen”. Espazioen erabilpenerako proiektua aurkeztu zuten. Mojekin ados jarri ziren eta lagatze-kontratua sinatu zuten.

Halako beste proiekturik eza gutzen duten galdetuta Crisek eta Jordik Artiedako Arterra

aipatu dute. Baina “desberdinak” direla zehaztu dute, hura “gehiago elkarbizitza proiektua” dela azaldu dute. “Eraikin oso handi bat da, aukera ematen dute topaketak egiteko. Aterpea badute. Hemen halako zerbait egiteko asmoa dugu. Elkarte gara eta bazkide eginez hemen gaua pasatzeko aukera dago”. Desberdintasuna da “komentuan ezin dela bizi. Bakarrik erabiltzeko da”.

Ziordiarekin erlazio handirik ez dute izan. Iritsi zirenean udal ordezkariarekin hizketatu ziren. Aterpe proiektua garatu nahi zuten, baimenarekin... Ezinezkoa zela ikusi zuten eta atzera egin zuten. Udalarekin bildu badira, Ziordiko beste eragileekin bilatzeko asmoa dute. Harremana izan dute elkartearekin eta gazte asanbladarekin. Bilera horiek egitekoen zerrendan dituzte.

“Poliki-poliki. Gauzak lotzen nahiko itxita egon gara eta iritsi garenera iritsi gara. Orain zabaltzeko momentua da, elkar-
te egina dugunean. Herrikoak hemen inplikatzeko garrantzitsua litzateke”.



Helburuak eta balioak

Amaraueneko kideek azaldu dituzte, "gure nahi indibidualak zein kolektiboak ase ditzakegun espazioa" da Ziordikoa, "non guztiak askatasunean harremanetan jarri gaitezkeen, konfiantzan, errespetuan eta komunikazio on batean oinarrituz". Hori lortzeko espazio eta proiektu ugari sortu eta garatuko dituzte.

Dituzten helburuen artean daude gizarte solidario eta osoak sortzeko prozesu zabaletan laguntzea, ekologiaren esparruan iraunkortasuna zaintzea, iraunkortasunaren printzipioak kontuan hartuz turismo alternatiboaren garapena bermatzea, giza eta naturarekiko harreman mota berriak ezartzeko espazioak sustatzea, hazkuntza naturala eta kontzientea sustatzea, egungo ekonomia parametroen eraldaketa globalean parte hartzea eta arteak sorkuntza eta errealizazio bezala sustatzea.

Ziordikoaren moduko espazioak beharrezkoak jotzen dituzte "giza eta natura harreman mota berriak ezartzeko", zeinen oinarriak lirakeen "elkarrekiko laguntza eta zaintzea, giza transformazioa, antolatzeke beste era bat eta abar". Eraldaketa hori gizartean, ekonomian, ingurumenaren babesean eta kolektiboaren antolaketan beharrezko jotzen dute.

Zabalkundea

Komentua, lurrak eta etxebizitza ditu Ziordiko Amaraunak. Orain arte "proiektua zehazten" egon dira. "Hainbat talde daude. Sortu dira proiektu batzuk, besteak desegin. Beste batzuk egiteko daude. Momentuz, lau pertsona elkarbizitzen ari dira etxean; beste batzuek behiak dituzte,

espazioa baliatzeko; fruta-arbolak zaintzeko 10 pertsonako lantaldea dute (sakandarrak eta iruindarrak); psikomotrizitate gela, haurren zaintza alternatiboan interesa duten kideak ditugu... Proiektu asko".

Ziordiko Amarauna proiektua 14 pertsonak abiarazi zuten. Talde-motorrean, asanblada finkoan, bospasei pertsona daude. Horretaz aparte, esaterako, animaliez, erleez, baratzaz edo komunalaz arduratzen talde autonomoak daude; nahiz eta anto-



Auzolan irekia antolatuta

Agorrilaren 5etik 8ra, larunbatetik asteartera, eginen dute. "Edonor gonbidatuta dago. Aurretik zein lan eginen ditugun jakinaraziko dugu. Ideia da lau egun hemen pasatzea, guztien artean otorduak prestatzea eta auzolana egitea. Aukera ona da jendea gerturatu eta proiektua ezagutzeko".

lakuntza orokorra kontuan izan, "euren erabakiak hartzen dituzte".

Udan "dugun proiektua publiko egitea nahi dugu, jendea pixka bat gerturatzeko. Baina ikusi dugu une bat zinetan indar oso gutxi genituen". Horregatik, hilaren 5ean bilera irekia deitu zuten. "Laguntza eskatzen, jendeari gerturatzeko. Zeren ikusten dugu hemen kristoren aukera dugula edozer proiektu gauzatzeko. Jendeari hori partekatu nahi genuen". Orain arte ezin izan dute ireki elkarte legez eratzen egon direlako.

Aurrera begira

Altsasun kontzentrazioa egonda eta sanferminen bezpera izanda, "data onena izan gabe ere", 20 bat pertsona elkartu ziren. Komentua zena erakutsi zieten. Ziordiko Amaraunaren aurkezpena egin zieten. Iritzi trukaketa izan zen eta auzatearekin despeditu zuten bilkura.

Bilera hartan "indarra" hartu zuten. Bi helburu jarri dituzte. Batetik, gizarte erakunde edo mugimenduei topaketak edo jardunaldiak egiteko eskaintza eginen diete. Horretarako, gelak prestatu beharko dituzte. Jakinarazi digutenez, Ziordiko Amaraunak udan topaketa batzuk hartuko ditu. Beste helburua gutxieneko bazkide kopurua lortzea izan da, "espazioak sortzen dituen gutxieneko gastuak pagatzeko".

Beste bilera bat egin dute, "proiektuak ez dira asko zehaztu, baina irekiera plana egiteko lan banaketa antolatzeke, taldeei eskaintzeko eta jendea bazkide aktibo izateko gogoz dago". Bloga eta esku-orria, horiek prestatzen ari dira, euren proiektua



Bi motatako bazkidetzak izanen dira

Bazkide aktiboa. Proiektu orokorra eta espazioak kudeatzeko, erabakitzeko, antolatzeke ardura eta eskubidea duena da. Espazio guztiez gozatzeko aukera du, baita haiek zaindu eta mantentzeko betebehara ere. Gainera, han hainbat proiektu sortzeko aukera izanen du. Hileko 10 euro ordaindu behar dira. Bost bat ziren lehendik eta bileraren ondoren hiruzpalau gehiago batu zaizkie.

Urteko bazkidea. Bazkidetza aukera horren alde egiten duenak espazio guztiez gozatzeko aukera izanen du, baita haiek zaindu eta mantentzeko betebehara ere. Urtean 70 euroko kuota ordainduz Amaraunaren espazioan proiektuak sortzeko aukera izanen du.

Egungo martxari eusteko aurrekontuak dituzte Dorraon

Joan den urtean baino mila euro gehiagoko aurrekontua du Dorraoko Kontzejuak aurten, 52.500 eurokoa hain zuzen ere. Gaur egun eskaintzen dituen zerbitzuak mantendu eta ordaindu beharrek maileguak pagatzeko nahikoa da. Nahiz eta premiak egon, esaterako, maistruban etxeko teilatua konpondu, bestelako inbertsioetarako ez dela iristen esan digu Iñaki Gaulabur Razkin kontzeju-buruak. Bestalde, Nafarroako Gobernuak emandako erabilera askeko funtsetik 23.181,63 euro emanen dizkio heldu den urtean kontzejuari. Diru horrekin zer egin oraindik ez dutela zehaztu jakinarazi digu kontzejuko presidentek.

Erromeria aldi bete-betean daude irintarrak

Herriko hiru ermita eta Aralarako santutegia. Horiak irintarren egutegian markatuta dauden erromeriak dira. Igandean hasi ziren, herri sarreran dagoen San Gregorio ermitan. Irañeta iparraldean dagoen San Migelberrik hartuko dio lekukoa igandean. Erromeria aldia bargan segituko du hilaren 30ean. Zabaldermian San Pedro martir baseliza zegoen. Hura eroria dagoenez, haren tokia Basabeko bordak beteko du eta han eginen da meza. Haren ondoren irintar guztiendako otamena izanen da. Despeditzeko, Aralarako santutegian elkartuko dira agorrilaren 6an. Mezaren ondoren irintarrek aterpean bazkalduko dute.

PAKO
HARATEGIA

Ongi pasa festetan!

Kale Nagusia, 50
OLAZTI
948 562 858

SORGIÑAK
taberna

LAKUNTZA

948 576 357

Arbizu
Embutidos y patés

Tradizioaren zaporea

www.embutidosarbizu.es

info@embutidosarbizu.com
T. 948 460 628



Altsasuko gazteen auziagatik protestan jendeak Gaztelu plaza bete zuen.

Gurasoak eta plataforma epaiketari begira

Iruñeko Gaztelu plazan makina bat jende elkartu zen ostiralean, 5.000 pertsona Udaltzaingoaren arabera. “Laster” etorriko den epaiketari begira auziaren inguruko informazio zabalkundea eta babes ekimenak areagotzeko eskatu zuten gurasoek

ALTSASU

Udazken hasieran izan daiteke epaiketari Espainiako Auzitegi Nazionallean. Dagoeneko Altsasuko Gurasoak eta herri-plataforma horri begira jarri dira eta hala nabarmendu zuten Iruñean egindako kontzentrazioan, ostiralean. Altsasuko Gurasoek etorkizunera begira etor daitezkeen mobilizazioetarako “zuek guztiak gogoan zaituztegu” adierazi zuten, “Espainiako Auzitegi Nazionaleraino iritsiko den tsunami olatua sortzea eskatzen dizuegu, zuen laguntza behar dugu”. Udan ez gelditzeko eskatu zuten: “auzia ezagutzen ez duen jendea dago. Bidegabekeria da hau guztia eta eurengana ere

iritsi daiteke. Ez gara soilik gure alde borrokatzen, denon alde baizik”.

Plataformatik, berriz, “bai auzipetuei bai Espainiako Auzitegi Nazionalari” jakinarazi zieten “ez dira bakarrik egonen epaitegi arrotz horretan. Herri oso bati eraso egin diote, eta herri oso bat izanen da gazteekin Madrilera jaitsiko dena, babesa emanez eta haiekin batera borrokatuz”.

Plataforma eta Batzar Nagusiak Ostiralean zortzi hilabete egin zituzten kartzelan Adurrek, Jokinek eta Oihanek. Madrilen urrunduta, eta sakabanatuta. Plataformako kideek azaldu zue-

nez, “honetan marra gorri asko zeharkatu dituzte eta haien kontra bueltatzen ari da basakeria hau: geroz eta pertsona gehiago gara hau erokeria dela oihukatuz, geroz eta pertsona gehiagok bat egiten dute gurekin”.

Bestalde, Gipuzkoako Batzar Nagusiek ebazpena onartu zuen Altsasuko gazteendako fiskaltzak egindako zigor eskaerarekin “erabateko desadostasuna” adierazten du eta “kezka handia adierazten dute gertaeren bilakaerarengatik, kasua neurrigabekeria eta bidegabekeria onartezin batera heldu dela ikusita”. EAJ, EH Bildu eta Ahal Dugu adostu zuten ebazpena; kontra bozkatu zuten PSE-EEK eta PPk.



REBEKA MENDOZA

Ostotsak festak bukatzeko

Santa Marinatik jaistean hostosketan hasi zen baina gehiegi busti gabe herrira iritsi eta han despeditu zituzten festak iturmendiarek asteartean. Ostiralean hasi zituzten Karmengo Amaren omenezko festak. Etxaju iragarlea jubilatuta elkarteko Migel Lopez Arañak piztu zuen. Udalak, elkarteak herriaren alde egiten duen lana aitortu nahi izan zuen.



REBEKA MENDOZA

Erkudenen elkartuta

Hilaren 2an 09:00etan egindako elizkizunean altsasuar gutxi batzuk izan ziren Erkudengo ermitan. Egun hartako elizkizunaren ondoren irudia hartu eta elizara eraman zuten, bederatziruena egin baitzuten herrian. Hura despedituta makina bat altsasuarren laguntzarekin, “etxera bueltan” joan zen irudia domekan. Meza, gosaria eta dantzak izan ziren.

C3 CITROËN BERRIA

AS UNIQUE AS YOU ARE.

Personalizaziorako 36 konbinaketa
Nahigabeko bide aldaketaren alerta
Abiadura mugen antzematea
Aholkatutako atseden adierazlea
(Coffee Break Alert)



CITROËN C3
9.950€tik hasita



facebook twitter linkedin youtube citroen.es

CITROËNek nahiago TOTAL. KONTSUMO MISTOA (L/100KM) / CO2 EMISIOA (G/KM): CITROËN C3: 3,5-4,9 / 92-113. *Penintsula eta Baleariarriretan aholkatutako prezioa C3 PureTech gasolinaren 68 Feel por 9.950€ (zergak, garraloa eta eskaintza barne), PSA Financial Services Spain, EFC, S.A. ren bidez 6.000€ko gutxiengo kapitala finantzatzeko bezero partikularrentzako eta 48 hilabeteko iraunkortasunarekin. Eskaintza ez-bateragarria. Finantzatu ez duen bezeroarentzat aholkatutako prezioa: 11.450€. Eskaintza 2017/07/31 arte. Ikusten den erudia C3 Shine. (1) Citroën Asistentzia: baldintzak www.citroen.es. Automóviles Citroën España, S.A. c/Dr. Esquerdo, 62 – 28007 Madrid. CIF:A-82844473



8 URTE
CITROËN ASISTENZIA
Doako asistentzia
maiburretan eta istripuetan

IRURTZUNGO FESTAK

OSTIRALA 21

10:00 Dianak.

11:30 Erraldoi eta buruhandien konpartsa.

11:30 Joko eta jolas herrikoiak
Helduak (Izen-ematea egiten den tokian, Foru plazan).

12:30 Musika bermuta
Lucianorekin.

14:00 Kalderete lehiaketaren epaia
Izen ematea 13:00ak arte, arkupeetan.

14:30 Kaldereteen bazkaria*.

17:00 Bazkalondoa eta kalejirak
New Tocados.es txarangaren eskutik.
Txaranga bat baino askoz ere gehiago!!!

18:00 Noeren Arka: Gorriti eta bere animaliak. Gernika plazan.

18:00-21:00 Gorputz-arte
(Body-Art), larruzalaren makillajea.
Plazako karpan.

19:15 Kale antzerkia
Trapu Zaharra antzerki taldea: Sefini!
Tokia: Foru plaza.

19:30 Esku-pilota Jaialdia.
Erremonte profesionaleko jaialdia (XII Nafarroako Foru Komunitatea saria kanporaketa). Sarrera doan.



20:30 Dantzaldia
Nueva Frontera taldearekin.

22:00 Larrain Dantza.

22:30 Zezensuzkoa
Kultur etxean hasi, eta Gernika parkean despedituko da.

24:00 Dantzaldia
Nueva Frontera taldearekin.

LARUNBATA 22

10:00 Dianak, akordeoilariak.

11:30 Euskarazko jarduerak
Ipuin-kontalaria, Kantajokoak eta Master Chef sukaldaritzatzaileak, plazako karpan.

13:00 Musika bermuta
Pantxo Balbuenarekin, plazan.

14:30 Jubilatuen bazkaria
Ondoren, dantzaldia.

16:00-20:00 Ur-parkea
Txirrista, irristagailua, spla... Gernika plazan.

18:30 Esku-pilota lehiaketa.

19:00 Dantza-ikuskizuna
Fusioak, Aukeran dantza taldea, Foru plazan.

20:30 Abiba Diskojaia.

22:00 Larrain Dantza.

22:30 Zezensuzkoa.
Kultur etxean hasi, eta Gernika parkean despedituko da.

00:30-05:00 Abiba Diskojaia.

IGANDEA 23

10:00 Dianak, gaitariak.

11:15 Erraldoi eta buruhandien konpartsen elkarketa.
Zangoza, Tafallako Asier Marko eta Irurtzun.

14:00 Erraldoi eta buruhandien konpartsen agurra

18:00 Irurtzungo dantza txikien eskolaren emanaldia, plazan.

19:00 Eskorga-kronoeskalada
El Principauté de Laas-ekiko senidetzea. (Brouetteko Grand Prix International de Les 3 heures)

20:00 Dantzaldia
Kresala taldearekin.

22:00 Larrain Dantza.

22:30 Zezensuzkoa.
Kultur etxean hasi, eta Gernika parkean despedituko da.

23:30 Dantzaldia
Kresala taldearekin.

01:30 Hau pena nik!

BARAZKI GUNeko EGITARAUA

OSTIRALA 21

14:30 Gazteok ere kaldereteetara!

19:00 Mikro irekia
(karaok, txisteak, bakarrizketak...).

23:30 Kontzertuak
Txartoak, Skaldunak, Jo ta txo dj.

LARUNBATA 22

17:00 Mus eta parxis txapelketak
Izen ematea 16:30ean zabalduko da, 5 euro bikoteko.

19:00 Elektrotxufia
Elektro txaranga.

22:30 Herri-afaria
Plazan (Etzerat).

00:00 Kontzertuak
Esparadraro, Ahuntzape, Khous eta DmDa.

Eskorga-kronoigoeren senidetzea

Irurtzungo festetan hutsik egin ezin duen ekitaldietako bat da eskorgen-kronoigoera. 1997tik jokatzeko proba kultur etxera daraman aldapan. Hasierako probak bilakaera izan badu ere, gidariak bidaiari bat eskorgan aldapan gora igotzen datza, tarteko trebetasun probak gorabehera. Igandean 19:00etan jokatuko da aurtengo edizioa eta berritasun aipagarria izanen du: Laasko probarekin senidetzea (2010ean Pontevedrako Vila de Crucesekin senidetu ziren). Gainera, hango eskorga apainduak ezagutzeko aukera izanen dute irurtzundarrek eta bisitariak.

Laas, Donapaleutik (Nafarroa Behera) gertu dagoen Bearneko herri bat da. Eskorgekin 1983tik ospatzen dute proba bat, agorrilean Monako lasterketa entzutetsuaren ondoren. Aldaketa etorri zen gerora eta Hiru Ordutako Nazioarteko Lasterketa Handia izena hartu zuen. Dozena erdi kidez osatutako taldeak (lau eramaile eta bi bidaiari) 375 metroko ibilbide batean aritzen dira, hiru orduz. Bai parte-hartzaileak bai gurdiak, gainera, gai baten inguruan apainduak daude. Horregatik, igandean lehiatuko direnei euren gurdiak apaintzera gonbidatu dituzte antolatzaileek. Hobekien apaintzen dituen bikoteak Laasko lehiaketan parte hartzeko bidaia irabaziko du.

130 biztanleko herriak Monako eta, batez ere, Andorraren moduko printzerria izan nahi du. Horregatik, 2015eko urte hasieran bere independentzia aldarrikatu zuen. Adierazpen horrek, alde batetik, txantxatik du; bestetik, sustapenetik eta, azkenik, protestatik, besteak beste, nekazaritzari buruzko Europako politikekin kritiko baitira.

IGANDEA 23

PELUKA-FEST

22:30 Afari autogestionatua
Barazki-gunean; jatekoa eraman, edaria gunearen kontu.

23:00 Jam sesion-a eta II. oliba jaurtiketa.

LARRAZPIKO ELEKTRONIKA GAUAK

OSTIRALA 21

22:00 Yngrid (Gasteiz), Monica Elektra (Control Voltage), Pasechnik Iana (Moldavia), Inopia (Twelve Inch/Galizia), Ametsa (Txantrea) eta Dark Eider (Txustarra2).

LARUNBATA 22

22:00 Liños (Twelve Inch/Galizia), Pushmann (N&N Rec / Naked Lunch), Donjon vs Gordon (Brutal Noise / Rebels), Zerstörer der Geister (Gorka & Yossef/ Híbrido set), Mike Villas (Parket flat) eta Oliver Castro (Gasteiz).

BAKAIKUKO FESTAK

OSTIELA 21

20:00 Festen hasierako etxajua
Herriko musikariez girotua, buruhandiak eta japoniar bonbak. Ondoren, Bakaikuko Zortzikoa plazan eta Auzatea Bakaikuko ehiztari elkartearen eskutik.

22:00 Aferia.
Etxean eta bizirik nahi ditugu

00:00 Kontzertua
Atzapar Rock eta Dantzaldia Kapri taldearekin.

LANBATA 22

12:00-14:00 Haur Parkea
Eskolako belardian: puzgarriak, wipo garbitzaile mekanikoa, segway eta crazy bike.

13:00 Kontzertua
Hutsun Txalaparta Hutsa, plazan.

13:00 Auzatea
Jubilatuaren elkartearen esku, Iñaki Bizkairin musikarekin.

16:30-19:30 Haur Parkea
Eskolako belardian: puzgarriak, wipo

garbitzaile mekanikoa, segway eta crazy bike.

19:00 Aizkora erronka plazan
Jauregi-Lopez Azpilikueta VS Erdozia-Beltza.

20:00 Auzatea
Gabriel Aresti barnetegiaren eskutik.

20:00-22:00 Dantzaldia
Trikidantz taldearekin.

00:00-04:00 Dantzaldia
Trikidantz taldearekin.



GUAIXE

DOMEKIA 23

12:30 Herri-Kirolak
Bakaikuko haur eta gaztetxoaren artean, plazan.

BAKAIKUKO FESTAK

13:00 Kontzertua

Los Tenampas mariatxien kontzertua, plazan.

18:00-22:00 Artisau azoka

San Juan plazan.

19:00 Etorkizuna dantza taldea.

20:00 Auzatea

Bakarrekoezka elkartearen eskutik.

22:00 Zezensuzkoa.

20:00-22:00 Kontzertua

La Banda del Jefe Bigun.

00:30-03:30 Kontzertua

La Banda del Jefe Bigun.

ASTELEHENA 24

12:00 Meza

adinekoen omenez.

12:00 Apar festa

eskola ondoko kantxetan.

14:30 Jubilatuen bazkaria

Eta omenaldia elkartean. Ondoren Iñaki Bizkaireren emanaldia.

19:30 Salbea eta bezperak

Santiago.

20:00-22:00 Dantzaldia

Oharkabe taldearekin.

00:30-03:30 Dantzaldia

Oharkabe taldearekin.

ASTIARTIA 25

12:00 Santio meza.

13:00 Japoniar bonbak plazan.

13:00 Emanaldia

Luisyana bikotea plazan.

17:00 Pilota partidak

Iturrarte pilotalekuan (haur, kadete eta senior mailak).

20:00 Play Back

erakustaldia plazan.

22:00 Herri-afaria plazan.

20:00-22:00 Dantzaldia

Gabezin taldearekin.

00:30-02:30 Dantzaldia

Gabezin taldearekin.

HERRI MUGIMEDUAREN EGITARUA

OSTIELA 21

(Jantzi euskal preso eta iheslariak Bakaikuko jaietara kamiseta)

19:00 Plazako hagetan gure ikurrak jasoko dira.

Ondoren, Presoen eskubideen aldeko poteo-enkartelada plazatik.

22:00 Afaria

Etxean eta bizirik nahi ditugu!

LANBATA 22

20:00 Lau haizetara Presoak kalera. Plazan.

22:00 Bokatada.

4:00etatik 7:00etara Tirri&Tery

Musikaz presoak kalera! Plazan.



GUAIXE

DOMEKIA 23

20:00 Urdaiazpiko apustua plazan.

20:30 Altsasukoak aske Herri argazki erraldoia plazan.

22:00 Gazte afaria plazan.

03:00 Zumba maratona plazan.

ASTELEHENA 24

14:30 Gazte bazkaria Aiztin.

Ondoren, gazte jokoak Aiztin.

18:00 Herriari buelta Eonian

elektrotxarangarekin.

ASTIARTEA 25,

MOZORRO

EGUNA, DENOK

MOZORROTZERA!

Antolatzaileak: Bakaikuko Gazte

Asanblada eta ezker abertzalea.

OLATZAGUTIAKO FESTAK

LARUNBATA 22

10:30 Kartel lehiaketako sari banaketa

San Migel plazan.

11:00 Zapi banaketa

Aurten jaiotako haurrei, San Migel plazan.

11:30 Hamaiketakoa

Lan taldeetako parte-hartzaileendako eta udal langileendako, kultur etxean.

12:00 Santa Anaren omenezko festak iragartzeko suzuria kultur etxean.

Kalejira La Cigarra txarangarekin. Erraldoi eta buruhandiak.

16:00 Txirrindularitza

Eskolen proba, Erburua kiroldegiaren inguruetan.

17:00-20:00 Txapa tailerra

Berdintasunaren alde festetan ere zure txapa egin, San Migel plazan.

17:30-20:00 Musika animazioa

Los Villanos del Ruido kaleko bandarekin.

20:00 Kakahueteak, gazta eta ardo banaketa zilarrezko katiluetan

San Migel plazan.

20:00-22:00 Dantzaldia

Joselu Anaiak taldearekin, San Migel plazan.

21:00 Japoniar bonbak

Intsumisioaren plazan.

22:00 Zezensuzkoa.

00:00-03:00 Dantzaldia

Joselu Anaiak taldearekin, San Migel plazan.

DOMEKIA 23

12:00 Hiru talderen arteko haur mailako areto futbola

Uharte Arakil- Ziordia- Olatzagautia. Areto futboleko pista. Antolatzailea: Sutegi taldea.

12:00 Hamabietakoa

Kamiogaina elkarrekin eskainia, San Migel plazan.

13:00 Bermut kontzertua

Puro Relajo taldearekin, San Migel plazan.

14:30 Haur bazkaria

Memoria historikoaren parkean. (Euria eginez gero Sutegi gimnasioan).

15:30-19:00 Jolas parkea

areto futboleko pista. (Euria eginez gero Erburua kiroldegian).

17:00 San Migel elkarteko XLVI. pilota txapelketako finalak.

20:00 Kakahueteak, gazta eta ardo banaketa zilarrezko katiluetan

San Migel plazan.

20:00-22:00 Dantzaldia

Gaubela taldearekin, San Migel plazan.

21:00 Japoniar bonbak

Intsumisioaren plazan.

22:00 Zezensuzkoa.

23:00 Fakir insólito

San Migel plazan.

00:30-03:30 Dantzaldia

Gaubela taldearekin, San Migel plazan.

ASTELEHENA 24

12:00 Hamabietakoa

San Migel elkartearen eskutik, San Migel plazan.

13:00 Bermut kontzertua

Voces Riberas taldearekin, San Migel plazan.

18:00 Bordetxe abere zirkoa

Areto futboleko pista.

19:00 Kale antzerkia

"A cal y canto". Trapu zaharra antzerki taldea, Sarasate plazan.

20:00 Kakahueteak, gazta eta ardo banaketa zilarrezko katiluetan

San Migel plazan.

20:00-22:00 Dantzaldia

Drindots taldearekin, San Migel plazan.



GUAIXE

OLATZAGUTIA Haur-bazkaria

Memoria historikoaren parkean. (Euria eginez gero Sutegi gimnasioan) Garilak 23, domekan, 14:30ean.

21:00 Japoniar bonbak, Intsumisioaren plazan.

22:00 Zezensuzkoa.

23:30 Hip-hop ikuskizuna

Cultura Urbana. Break dance (dantza akrobatikoa), popping (robot dantza),

looking (80. hamarkadako dantza) eta dancehall (dantza modernoa) areto futboleko pista. (Euria eginez gero frontoian).

00:30-03:30 Dantzaldia

Drindots taldearekin, San Migel plazan

OLATZAGUTIAKO FESTAK

ASTEARTEA 25

09:30 Sutegi taldearen pilota txapelketako finalak

Aurre-benjaminetatik jubenetara. Sari banaketa. Antolatzailea: sutegi taldea.

12:00 Hamabietakoa

Maisuenea gaztetxearen eskutik, San Migel plazan.

13:00 Dantza ikuskizuna

Etorrizuna dantza taldea, San Migel plazan.

14:30 Untxi-kalderete lehiaketa

Memoria historikoaren parkean. (Euria egingo balu eskolako pilotalekuan) parte hartu nahi dutenek 11:00etan sutegi gimnasioa joan beharko dute suak eta bonbonak jasotzera. Kaldereteak 14:30erako bukatu behar dira epaimahaiak erabaki ahal izateko. Bazkaltzeko mahaiak, bankuak eta ardoa eskainiko dira.

17:00 4 t'erdiko pilota partidak

Olló vs Murgiondo. Binakakoa: Titiñ Ill-Bergera vs Ongay-Azana.

18:00 Txirri, Mirri eta Txirribitonen Erromirria

Areto futboleko pistan. (Euria egingez gero eskolako frontoian).

20:00 Kakahueteak, gazta eta ardo banaketa zilarrezko katiluetan

San Migel plazan.

20:00-22:00 Dantzaldia

Bull dj-rekin.

21:00 Japoniar bonbak

Intsumisioaren plazan.

22:00 Zezensuzkoa.

23:30 Bakarrizketalaria

Iñigo Salinero, San Migel plazan.

00:30-03:30 Dantzaldia

Bull dj-rekin.

ASTEAZKENA 26

SANTA ANA

12:00 Erraldoi, buruhandi eta gaiteroekin lagundurik elizaraino.

12:00 Hamabietakoa

Santa Ana elkartearen eskutik, San Migel plazan.

13:00 Bermut kontzertua Sakanako Trikitixak taldearekin, San Migel plazan.

14:30 Jubilatuta eta adinduendako bazkaria

Kamiogaina elkartearen. Bazkalondoan Ciclon taldearekin dantzaldia.

14:30 Herri-bazkaria

Memoria historikoaren parkean. (Euria egingez gero eskolako frontoian).

17:00-19:00 Musika animazioa New Tocados taldearekin.

18:00 Apar festa

Kiroldegiko atzeko pistan.

19:00-22:00 Dantzaldia

Xaibor taldearekin, San Migel plazan.

21:00 Hegaluze parrillada Vicente Argomaniz plazan.

21:00 Japoniar bonbak Intsumisioaren plazan.

22:00 Zezensuzkoa.

23:30 Kaleko piroteknia-ikuskizun ibiltaria

Cavaltheos foc, Scura Splats taldea. Irteera eta helmuga: areto futboleko pista.

00:30-02:30 Dantzaldia

Xaibor taldearekin, San Migel plazan.

Oharra:

Piroteknia oinarri duen kale-ikuskizuna bertan parte hartzeko pentsatua dagoen ikuskizuna da. Parte hartu nahi dutenei txanoa eta arropa bakeroa eramatea gomendatzen zaie. Ezbeharren bat gertatuko balitz ez antolakuntzak ez taldeak ez dute inolako ardurarik hartuko.

MAISUENEA GAZTETXEAREN EGITARAUA LARUNBATA 22

KOADRILEN EGUNA

22:00 VIII.Maisu-techno: Jon Gast (Disfrun TV), Txen (Checkpoint Radio), Iosu Garate (Lakuntza), Dzergy (Checkpoint Radio), Txo Blanco (Iruña), Alfon si fon (Checkpoint Radio), ea Eder Pardo (Iruña).

DOMEKA 23

OKUPAZIOAREN EGUNA

19:00 Martinbertso Irrien Lagunak.

22:00 Okupazioaren aldeko afaria

gaztetxean Ondoren gazte lehiaketa.

ASTELEHENA 24

EUSKAL PRESO ETA IHESLARIEN EGUNA

20:00 Kontzentrazioa.

22:00 Afaria

Euskal preso eta iheslarien eskubideen alde.

23:00 Erromeria gaztetxean

Malkogariyak taldearekin.

ASTEARTEA 25

GAZTE EGUNA

20:00 Elkarretaratzea

Altsasukoak aske, plazan.

Arakildarrak euren eguna ospatzera elkartuko dira

Asteartean izanen da, Itxasperrin hasi eta Hiriberrin segituko du festak, duela 14 urte bezala

ARAKIL

Arakilgo egunak, ohi denez, Santiago egunarekin bat egiten du eta asteartean ospatuko da. Aurrena, goizean, Itxasperri ermitaren ondoan. Hantxe elkartuko dira ibarra osatzen duten dozena bat herrietatik joandako arakildarrak. Mezetara sartzen direnek Arakilgo abesbatza entzuteko aukera izanen dute. Gainera, urtero moduan, elizkizunaren ondoren nabarmendu diren arakildarrak omenduko ditu udalak. Eta, eguerdiko otamenaren ondoren, festa Hiriberrira lekualdatuko da. Han, hasteko, erakusketa hirukoitza ikusteko aukera izanen da: Jose Cruz Arbillaren fosilak, Gotzone Saiz de Murietaren egur lanak eta Cristina Iturmendik egindakoen popinen erakusketa. Herri bazkarian 260 pertsona eseriko dira mahaira.



Trikitilariak pasa den urtean. GUAIXE

Egitaraua

Itsasperrin

10:30 Egiarretatik jaitsiera Orritz dantza taldearekin.

11:00 Meza, Arakilgo koralarekin.

11:45 Udalaren omenaldiak.

12:00 Otamena eta Orritz dantza taldea zelaian.

Goizean zehar artisauak, trikitilariak....

Hiriberrin

13:30 Arku jaurtiketa erakustaldia.

13:30 Fosil, egur taila eta panpina erakusketa.

14:30 Herri bazkaria.

16:30 Bazkalostea rondallak alaituta.

17:00 Haurrendako tailer eta jokoak.

17:30 Mus, briska eta partxis txapelketak.

17:30 Los Andus bikotearekin dantzaldia.

18:00 Puzgarriak.

20:00 Sari banaketa.

20:30 Pintxopotea.

**BUJANDA
OGI BERRI**

Ongi pasa festetan!

Kale Nagusia 40, behea · Olazti

Jai Zoriontsuak opa dituztegu

**EGUR
KUTZARIK
AROTEGIA
ERAKUSKETA**

948 542 242
Porfuko kalea 19
Urbasa bideg.
OLAZTI

**Santa Ana 2017.
OLAZTI.**

Ongi pasa festetan!

**VETAILAREN
22tik 26ra**

**OLAZTIKO
UDALA**

Tel: 948 56 24 46 · Faxa: 948 56 25 29 · Garzia Ximenez enparantza 1 p.k. 31809, Olazti
olazti@olazti.com · www.olazti.com · kultura@olazti.com · Olazti kultura

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI. gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 21

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa.
Kale Nagusiko 7. zerbakiaren parean, 19:00etan.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak.
Plazan, 20:00etan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.
Udaletxe parean, 20:00etan.

LARUNBATA 22

ALTSASU Altsasutik Done Bikendi Aranara 116 km-ko joan-etorria eginen du zikloturista taldeak.
Baratzeko bide plazako lokomotoratik, 08:00etan.

UHARTE ARAKIL Aralako santutegiko arkeologia-indusketan bisita gidatua dago larunbatero.
info@aditu.info e-postaren bidez egin daiteke eskaera.
Abside ondoan, 11:00etan.

IGANDEA 23

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.
Foru plazan, 20:00etan.



ENNECO

ETXARRI ARANATZ Enneco, haritzaren memoria
Nafarroako Erreinuaren historian murgiltzeko aukera. Informazioa www.enneco.eus edo 663 908 306.
Garilaren 8tik irailaren 3ra arte, asteartetik igandera, 11:00etatik 18:00etara.

ASTELEHENA 24

IRURTZUN Udako festa goxoa 12 urtetik gorako gazteendako.
Igerilekuan, 21:00etan.

ASTEAZKENA 26

ETXARRI ARANATZ Udako festa goxoa 12 urtetik gorako gazteendako.
Igerilekuan, 21:00etan.

ARBIZU Lur eta Luisillo bikote etxarriarrak musika joko du.
Olatzearen kanpoko aldean, 21:30ean.

IRURTZUN Udako zinema zikloaren barruan Kong, la isla de la calavera filma emanen dute.
Plazan, 22:00etan

OSTEGUNA 27

SAKANA Gernikan abiatu zen euskal presoen kaleratzea eskatzeko **Udako Kalera!** martxa Sakanara iritsiko da.
Altsasutik Etxarrira abiatuko dira 12:00etan eta Etxarri Aranatzetik Lakuntzara 16:30ean.

UHARTE ARAKIL Udako festa goxoa 12 urtetik gorako gazteendako.
Igerilekuan, 21:00etan.

OBJETIBOTIK

Mikel Lasarteren zurezko eskulturak

XIX. San Fermin Motozerra Saria jokatu zen aurreko ostiralean Iruñean. Parte-hartzaileek 30 minutuko bi txandatan motozerrarekin bi irudi egin behar izan zituzten. Mikel Lasarte Artola irurtzundarra fin ibili zen, motozerren hotsen artean bere irudimenari tokia egiten. Horrela, gutxinaka txerrikume xarmangarria eta lore zoragarria atera zituen enbor puska potoloetatik. Epaileek San Fermin Motozerra Sariko txapeldunorde izendatu zuten.



UTZITAKOIA

ZORION AGURRAK



Ricardo Urkijo
"Kaio"
ZORIONAK!! 90 urte bete dituzu!! Muxu pila bat etxekoan partez

Zorionak zure urtebetetzean

... ta urte askotarako

Argazkiak emateko lekuak: Altsasu: Foru plaza 23-1 - zorion@guaixe.eus - Ordainketa: Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
E556 3035 0018 47 01 81012564

*Eta orain 4€ argazkiak eta Pirritx Parrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Baskideek, 3,50€



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen ibiltura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com - www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU • Tel./Faxo: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

LOKALA ERRENTAN EMAN

Dorauko jaietako bi tabernak alokatzen dira. Jaiak abuztuak 14tik 19ra izango dira. Interesatuak dei dezala 608 520 769 edo 645 706 958 telefonora, abuztuaren 5a baino lehen.

OHARRAK

Odol-emaileak. Etxarrin: uztailearen 27an, 17:00-20:30. Ziordian: abuztuaren 9an, 19:30-20:30. Arbizun: irailaren 6an, 17:00-20:30.

Otaiko ermitaren alde. Eraikina konpontzeko diru bilketa egiten ari dira. Ekarpenak parrokian edo herriko banku eta kutxetan zabalduko kontuetan sartu daitezke.

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela.

Eplegarritasuna hobetzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresarien Elkarrekin langabezi eta lan bila dabilzanendako aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 euro

edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosefinaarreguilagunak.blogspot.com

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cedema-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 5 6 70 10, sakana@cedema.es edo sakana.admon@cedema.es

3MBk kontu korrontea zabaldu du Rural Kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Euskaldun bat euro bat. Nafarroako erresumakoa izan zen Baigorriko Etxauzia gaztelua euskaldunentzat erreskuratu nahi da. Nafartarren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindiko harremanak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa www.euskaldunbateurobat.com.

Nicoloren aldeko diru-bilketa. Garun paralisia duen neska olaztiarra atzerrian operatzeko diru-bilketan ekarpena egin nahi duenak kontu korronte honetan sartu de-

zake dirua: ES33 2100 5365 2301 0002 9770.

Euskonews ekonomiki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza, euskonews@euskonews.com, 943 32 22 94

OPATUTAKOAK / GALDUTAKOAK

GALDUTAKOAK

Betaurrekoak galdu ditut. Urdinak dira, eta gerturako graduatuak. Altsasuko Eroski-ren inguruan galdu nituen. Opatu dituenak, mese-dez, hots egin dezala 948 46 00 27 telefonora, Galartxa iturgintza.

Altsasuko Udaltzaingoak Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta mikilak: 19. Belatitakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

www.iragarkilaburak.com

JAIOTZAK / EZKONTZAK / HERIOTZAK

JAIOTZAK

- **Iker Cristóbal Triviño**, uztailearen 11n Altsasun.
- **Irai Perez de Obanos Altuna**, uztailearen 13an Errotzen.
- **Intza Gartzandia Urrestarazu**, uztailearen 13an Lakuntzan.

HERIOTZAK


- **Maria Villaverde Cascajar**, uztailearen 14an Altsasun.

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



ESKELAK

OROIGARRIA



Enrike Goikoetxea Askorbe

Asteburueto bueltan arrantza, bizikleta eta... non *azkena?*
Quercus, fagus, pinus radiata, viola wittrockiana, rosa gallica.
Lagun handia, umore fina.

Ustekabean joan haiz isil eta arin.
Bazkarietan kantari egongo haiz beti, Aspi.

Topa dezagun higatik!

Maite haugu, Enrike

Hire kuadrila

ESKELAK JARTZEKO:
948 56 42 75
edo eskelak@guaxe.eus

- Eskelen tariffak: 50,82 € / 96,80 € / 130,68 €
prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.

Nabarmendu zure iragarkia

Tamaina berria. Galdetu prezioa.

948 564 275

Nabarmendu zure iragarkia

Tamaina berria. Galdetu prezioa.

948 564 275

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKIAK@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

• Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.


• GUAIXEek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen

gorabeheren erantzukizunik. **ORDAINTZEKO ATALAK:**

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaxe paperean eta Guaxe.eus-en argitaratuko dira.
- Aste batez 3 euro, bi astez 6 euro eta hiru astez 8 euro (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.


EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 21




Goizean behe-hodeiak oraindik ere ugariak izango dira eta euria egin dezake. Arratsaldean egoera hobetuz joango da.

Larunbata, 22




Zerua hodei gutxirekin egongo da. Haizea iparraldetik. Arratsaldean tenperaturak igo egingo dira.

Igandea, 23



Iganderako, larunbatean jasotako giro berdina izango dugu, tenperatura mantenduko da.

Astelehena, 24



Euri zaparrada txikiak eta motzak egon daitezke. Tenperaturaren jeitsiera txiki bat antzemango dugu.

40 tanatorios
IRACHE
aniversario

Tanatorioak: Altsasu – Iruztzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70
@Grupolrache
Grupolrache
www.tanatoriosirache.es

San Migel elkarteko finalak igandean jokoan

PILOTA Olaztiko festetan ohi denez, XLVI. San Migel Elkarteko Pilota Txapelketako finalak igandean jokatuko dira, 17:00etan, Olaztiko pilotalekuan. Bestalde, astearterako jaialdi berezia antolatu da. Tartean, Titin ikusteko aukera izango da

Maiatzaren bigarren asteburuan hasi zen Olaztiko San Migel elkarteak antolatutako XLVI. San Migel Elkarteko Pilota Txapelketa. Ordutik, astebururo, makina bat pilota partidaz gozatzeko aukera izan da Olaztiko pilotalekuan. Hiru mailatan jokatuko da txapelketa, pilotari afizionatuek primerako maila eman



Aurreko urteko txapelketako finalistak. ARTXIBOA

dute, eta orain guztien artean onenak zeintzuk diren aukeratzeko txanda iritsi da.

Finalak igandean jokatuko dira, 17:00etatik aurrera, Olaztiko pilotalekuan. Ondoren, txapelketa parte hartu duten pilotariendako afaria prest izanen du antolakuntzak.

Titin, Bergera, Ongay, Azanza Murgiondo eta Ollo Olaztin

Olaztiko festetan antolatutako pilota programazioarekin segiz, astearte arratsaldean Sakanako pilotari afizionatuen eta Garfe-

ko pilotarien arteko jaialdi berezi eta ikusgarria antolatu du Olaztiko Udalak.

Jaialdia Santiago egunean jokatuko da, 17:00etatik aurrera. Lehenik eta behin lau t'erdian lehiatuko dira Murgiondo etxarriarra eta Ollo. Eta partida nagusian Titin III. arekin osatuko du bikotea Irurtzun klubeko Iosu Bergera arruazuarrak, bere taldekide eta Aspeko pilotari ohi Alberto Ongayren eta Azanzaren kontra aritzeko. Zalantzarik gabe, jaialdiak pilotazaleen ikusmina piztu du.

Sakanako udako pilotari onenak nor diren erabakiko da Olaztin

PILOTA Sakanako Udako Pilota Txapelketako finalak jokatuko dira Olaztiko festetan, asteartean

Olaztiko Sutegi klubak, Sakanako pilota eskolen, Sakanako Mankomunitatearen eta Nafarroako Pilota Federazioaren laguntzarekin antolatutako Sakanako Udako Pilota Txapelketa bere bukaerara iritsi da. Aurreko bi asteburutan finalerdiak erabaki ziren eta asteartean, Santiago egunean, final handiak egongo dira jokoan, Santa Ana festetan murgilduta dagoen Olaztagutian.

Aipatu txapelketa maiatzaren erdialdean hasi zen eta lehen Sutegik antolatzen zuen Sute-

gi-San Migel Txapelketaren lekua hartu du. Aurreko txapelketa toki askotatik etorritako pilotariak aritzen ziren, baina bereziki pilotari sakandarrak ari zirenean alde egin da aurtengo edizio berrituan.

Aipatu Sakanako Udako Pilota Txapelketa aurten Olaztin antolatu da, baina helburua Sakanako gainontzeko herrietan ere antolatzea bada, txandaka. 120 pilotari lehiatu dira txapelketa, gehienak sakandarrak. Asteartean erabakiko da nor diren udako txapelidunak.

San Migel finalak

Igandean, 17:00etan, jokatuko da San Migel elkarteak antolatutako XLVI. San Migel elkarteko Pilota Txapelketako finalak, Olaztiko pilotalekuan

3. maila
Iregi anaiak / Julen-Aitor

2. maila
Olmos-Arbizu / Aiestaran-Tuero

1. maila
Iñigo-Eñaut / Lopez de Zubiria-Garziandia

Sakanako Udako finalak

Asteartean, garilaren 25ean, jokatuko dira Sakanako Udako Pilota Txapelketako finalak, 09:30etik aurrera, Olaztiko pilotalekuan

Aurrebenjaminak
Lizarraga-Etxeberria (Irurtzun) / Gurmindo-Sarazibar (Sutegi)

Umeak A
Amiano-Yaben (Irurtzun) / Etxeberria-Okiñena (Irurtzun)

Umeak 1
Ulaiar-Igoa (Pilotajauku) / Zelaia-Eskudero (Aldabide)

Kimuak 1
Senar-Apaolaza (Lakuntza) / Rubio-Lizarraga (Sutegi)

Kimuak A
Sanchez-Sarasibar (Oberena) / Baztarrিকা-Berastegi (Aldabide)

Haurrak A
Erdozia-Lizarraga (Aldabide) / Etxeberria-Lopez (San Migel)

Haurrak 1
Peral-San Roman (Pilotajauku) / Ulaiar-Agirretxe (Pilotajauku)

Kadeteak:
Otxoa-Ganboa (Oberena) / Berekoetxea-Berastegi (Irurtzun)

Gazteak:
Aristegi-Ballerena (Txaruta) / Txoperena-Santamaria (Aurrera)

PILOTA Bakaikuko festek pilota jaialdia ekarriko dute

Bakaikuko festetara hurbiltzen direnek pilotaz gozatzeko aukera izango dute. Zehazki, asteartean, Santiago egunean, antolatu dute jaialdia, 17:00etatik aurrera, pilotalekuan.

Hasieran haurren eta kadeteen mailako partidak jokatuko dira. Haurren mailan, Zelaia eta Leizak Lopez eta Razkin izango dituzte aurkari, eta kadeteetan,

berriz, Arañatarrak Lopez de Zubiriaren eta Gonzalezen kontra ariko dira. Bukatzeko, seniorren mailako partidari, Ansa altsasuarra lanean ikusteko aukera izango da. Iruritarekin bikotea osatuta, Garcia eta Garatea izango dituzte aurkari.

Bestalde, larunbat arratsaldean, 19:00etan, aizkora erronka hartuko du Bakaikuko plazak. Erdozia eta Beltza etxarriarrak ariko dira alde batetik, Jauregiren eta Lopez Azpilikuetaen kontra.

ARETO FUTBOLA Sutegi, Uharte Arakil eta Ziordia, torneoan

Sutegi taldeak Olaztiko festetarako antolatuta, igande eguerdian Sakanako hiru talderen arteko haur mailako areto futbol triangularra jokatuko da Olaztin.

Zehazki, Uharte Arakil, Ziordia eta Olazti areto futbol taldeetako haur mailako taldeak izango dira triangularrean lehiatuko direnak.

KOTXKO Taberna

Ongi pasa festetan bakaikuarrak!

948 562 607
627 585 414

Bideberrialde Bakaiku



Urriza aurreko partida batean, pilota jotzeko prest. ORIAMENDI

Nafarroako Foru Komunitatea Torneoa Irurtzunen

ERREMONTA Gaur, ostiralean, 19:30ean. Urriza eta Etxeberria III.a Ezkurra II.a eta Endikaren kontra ariko dira

Beste behin erremontez gozatzeko aukera eskainiko dute Irurtzungo festek. Izan ere, Nafarroako Foru Komunitatea Erremonte Torneoa Irurtzuneran iritsiko da. Zehazki, torneoko finalerdietako ligaxkako 2. jardunaldia izango da gaur, ostiralean, 19:30ean Irurtzunen jokatu dena. Urriza eta Etxeberria III.a Ezkurra II.aren eta Endikaren kontra ariko dira.

Aipatu erremonte torneoaren Usartrotzen hasi zen, igandean, finalerdietako ligaxkako lehen jardunaldiarekin. Utergak eta Barrenetxea IV.ak Ezkurra II.

ari eta Endika Urrutia ordezkatzeko aukera eskainiko dute Irurtzungo festek. Izan ere, Nafarroako Foru Komunitatea Erremonte Torneoa Irurtzuneran iritsiko da. Zehazki, torneoko finalerdietako ligaxkako 2. jardunaldia izango da gaur, ostiralean, 19:30ean Irurtzunen jokatu dena. Urriza eta Etxeberria III.a Ezkurra II.aren eta Endikaren kontra jokatu diren jardunaldiek zehaztuko dute zein bi bikote sailkatzen diren finalerako. Erremonte jaialdia zabaltzen duen partidaren afizionatuen mailako esku-pilota partida jokatu da. Aipatzekoa da, bestalde, bihar, larunbatean ere afizionatuen esku-pilota lehiaketa jokatu dela Irurtzunen, 18:30ean.

Beste errekor bat June Kintanarendako: 56,30 m

DISKO JAURTIKETA Polonian jokaturako Europako Promesen mailako Atletismo Txapelketan laugarrena sailkatu zen bakaikuarra baina bere marka gainditzeaz gain, Espainiako promesen mailako errekorra apurtu zuen

BYDGOSZCZ (POLONIA)
June Kintana disko jaurtitzaila bakaikuarra Europako Promesen mailako Atletismo Txapelketan lehiatu da, Poloniako Bydgoszcz hirian. Bertan ahalik eta lan onena egitea eta finalista izatea, hori zen bere helburua. Baina bakaikuarrak helburuak gainditu ditu. Larunbatean aritu zen eta diskoa 56,30 metro jaurti zuen, bere marka pertsonala -55,66 m- 64 zentimetrotan hobetuz, eta Europako podiumera igotzeko 2 metro pasa exkaxera geratu zen. Azkenean, laugarrena sailkatu zen Europakoan, finalista izan zen eta bere marka pertsonala apurtzeaz gain, Espainiako promesen mailako marka ere apurtu zuen.

Ez dago zalantzarik; sasoi batean dago Pamplona Atletico taldeko atleta. Duela hilabete batzuk sorbaldan arazoak izan zituen, baina badirudi gainditu dituela eta azkenaldian bikain dabil bakaikuarra.



Kintanak Espainiako promesen mailako errekorra apurtu du. ESPAINIAKO ATLETISMO FED.

Europako Promesen Mailako Emakumezkoen Disko Txapelketa Claudine Vita alemaniarra irabazi zuen (61,79 m), Daria Zabawska poloniarren (59,08 m) eta Veronika Domnan esloveniarraren (58,48 m) aurretik.

June Kintana laugarrena izan zen (56,30 m); 2 metrorengatik ez zen podiumera igo. Leongo CEAR (Centro Especial de Alto Rendimiento) egoitzan trebatzen da disko jaurtiketan, eta aldi berean albaitaritza ikasten du.

Ezkurdia onena San Ferminetan

PILOTA Joseba Ezkurdia izan da sanferminetako feriako pilotaririk onena. Arbizuarrak bikote ikusgarria osatu du Beñat Rezustarekin. Bengoetxearen eta Beroizen kontrako final handian, mundial jokatu zuten biek: atzean Rezustak dominatu zuen eta aurrean jaun eta jabe ibili zen Ezkurdia. Udari hasiera bikaina.



GONZALO SALCEDO. WWW.21 IGUALES.COM

PILOTA Bakaikoa, Ezkurdia eta Zabaleta, Bizkaian

Asteburu honetan hasiko da VI. Bizkaia Torneoa, aldaketekin. Bost jaialdi izango dira, finala barne, eta jaialdi bakoitzean buruz buruko partida, lau t'erdikoa eta binakakoa jokatu dira. Torneoa gaur hasiko da, ostiralean, Arrigorriagan. Joanes Bakaikoak Peña II.a izango du aurkari, buruz burukoan.

Bihar, larunbatean, Barakaldon, binakako partidaren Elezkano II.ak eta Zabaletak Altuna III.aren eta Rezustaren kontra jokatu dute. Eta lau t'erdian Ezkurdia eta Retegi Biren arteko partida jokatu da. Partidak zuzenean ikusi ahaliko dira ETB1 telebista katean.



Sakana Triatloi Taldeko Xabier Borrega, igeriketaren ondoren bizikleta hartzeko prestatzen, trantsizio gunean. REBEKA MENDOZA

Sakana Triatloi Taldea txapelduna Urdiainen

TRIATLOIA Larunbatean Urdiaingo igerilekuan jokaturako XVI. Sakanako Haur Triatloian Sakana Triatloi Taldeko Eneko Razkin, Ane Iturrioz, Hegoi Lakuntza, Ekain Imaz eta Nahia Imaz txapeldunak izan ziren bere kategorietan

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatuta, larunbatean jokatu zen XVI. Sakanako Haur Triatloia, Urdiaingo Aitziber igerilekuetan. Dena ongi ateratzeko, Sakanako Triatloi Taldearen, Urdiaingo Aitziber elkartearen, Urdiaingo Udalaren eta Nafarroako Triatloi Federazioaren laguntza izan zuen Mank-ek. 100 triatleta zeuden izena emanda, baina 80 inguruk hartu zuten irteera.

Goizeko 10:00etan abiatu ziren probak. Lehenak juniorrak eta kadeteak izan ziren eta, ondoren, haur mailakoak. Segituan kimuen txanda iritsi zen eta haien atzetik benjaminak abiatu ziren. Bukatzeko, aurre-benjaminak hartu zuten irteera.

XVI. Sakanako Haur Triatloia Urdiaingo igerilekuetako para-je zoragarrian jokatu zen. Txirrindularitza eta korrika segmentuak igerilekuen inguruan izan ziren, Urriztin eta Saraben. Ibilbidearen edertasuna nabarmendu zuten triatleta askok.

Aipatzekoa da Sakana Triatloi Taldeko kideek egindako lana. Sakanako Udako Triatloi Campuseko kideetako batzuk ere Urdiainen parte hartzeraz animatu ziren eta guztien artean emaitza bikainak lortu zituzten. Horren isla jokaturako 11 probetatik 5 proba Sakana Triatloi Taldeko kideek irabazi zituzten: aurrebenjaminen gizonetakoetan Eneko Razkin izan zen txapelduna, benjaminen emakumezkoetan Ane Iturrioz, benjaminen gizonetakoetan Ekain Imaz, kimuen gizonetakoetan Hegoi Lakuntza eta haurren emakumezkoetan Nahia Imaz. Bukarera, triatleta guztiendako ogitartekoa eta freskagarria prest zituen antolakuntzak.

JOKATURAKO 11 PROBATIK 5 PROBA SAKANA TRIATLOI TALDEKO KIDEEK IRABAZI ZITUZTEN

Sakandarrak Haur Triatloian

-Aurrebenjaminak, gizonak:

1. Eneko Razkin (Sakana): 6:58
2. Oihan Andueza (Sakana): 6:59
4. Asier Razkin (Sakana): 7:22
6. Unax Mendinueta (Sak): 7:52

-Benjaminak, emakumeak:

1. Ane Iturrioz (Sakana): 8:26
2. Ane B. de Heredia (Sak): 8:52
5. Iraide Arrizabalaga (Sak): 9:32

-Benjaminak, gizonak:

1. Ekain Imaz (Sakana): 7:17
2. Alain Razkin (Sakana): 7:27
5. Haran Trebejo (Sakana): 8:34
6. Mikel Arrizabalaga (Sak): 8:40
7. Jon Ducar (Sakana): 8:42
11. Aitor Aldunate (Sak): 8:53
13. Alejandro Lopez (Sak): 10:03

-Kimuak, gizonak:

1. Hegoi Lakuntza (Sak): 14:45
11. Ekhi Barandiaran (Sak): 19:51

-Haurrak, emakumeak:

1. Nahia Imaz (Sakana): 29:58

-Haurrak, gizonak:

6. Xabier Borrega (Sak): 31:58

Ziordiko Futbol Txapelketako finalerdiak etzi jokoan

ARETO FUTBOLA Igandean jokaturako dira, 19:00etatik aurrera, Ziordiko Txipudian

1. Ziordiko Futbol Txapelketa azken txanpan dago. Aurreko asteburuan final laurdenak jokatu ziren. Lehen partidan, Los Suaves taldeari 1 eta 7 irabazi zion Futsal Sakanak; horrela, Irurtzongo taldea lehen fasean sailkapenean lehena sailkatu zen Ingenieria Iradiren kontra ariko da finalerdietan. Bestalde, Ziordiak 5 eta 4 irabazi zion Dia Ibaia taldeari eta Auzomotojorik taldeak 9 eta 5 hartu zuen menpean Aralar Mendi. Horrela, Ziordia eta Auzomotojorik taldeak sailkatu ziren beste finalerdietarako.

Iradi vs Futsal Sakana eta Ziordia vs Auzomotojorik

Ziordiko finalerdiak igandean jokaturako dira, 19:00etatik aurrera, Ziordiko txipudian. Lehenik eta behin, Ingenieria Iradik Futsal Sakana izango du aurkari.



Ibaia txapelketatik kanpo geratu da.

Ondoren, 20:00etan, Ziordia eta Auzomotojorik taldeen arteko partida jokaturako da. Irabazleak garilaren 29an, I. Ziordiko Futbol 5 Txapelketako final handia jokatzeko sailkatuko dira. Gal-tzaileek, aldiz, 3. eta 4. postuko finala jokaturako dute.

KIROLDEGIA Desfibriladore ikastaroa birziklatzen

Aurretik lortutako desfibriladore titulua mantentzeko, arautegi berriak bi urtetik desfibriladore ikastaroaren birziklatzea egitea eskatzen du. Beraz, titulua egunean izateko ikastaro hori egin beharrean egongo dira makina bat sakandar. Erraztasunak emateko, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak, titulua daukaten guztiei 4 orduko ikastaroa eskaini die Sakanan bertan, urriaren 19an, arratsalde, 16:30etik 20:30era eta dohainik. Nafarroako Kirol Institutua izango da ikastaroa eskainiko duena.

Desfibriladore birziklatze ikastaro honek gehienez 24 parte-hartzaile hartuko ditu. Izena eman ahala tokiak betetzen joango dira; beraz, izena ematea lehenbailehen egitea gomendatu dute antolatzaileek. Izena ematea zabalik dago, uztailearen 28a baino lehen eta dohainik, Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan (948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.eus).

ARETO FUTBOLA Osasuna Magna Xotak Bynho fitxatu du

C.A. Osasuna Magna Xota taldeak adierazi dutenez, 24 urteko Bynho jokalaria brasildarra fitxatu dute 2017/2018 denboraldirako. Bynho hegala da, ezkerreko mugikortasun handia duena eta kalitate handiko jokalaria. 2013an Moscúko Spartak taldean aritu zen, baina Brasilgo Joaçaba Futsal taldearekin dator eta partidako jokalaririk onena aukeratu izan da sarritan.

Alberto Ferraz Barbosa "Bynho" kontentua dago C.A. Osasuna Magna taldera etorriko delako. "Munduko ligarik onenean jokatzeko handia da niretzat, eta horrenbeste historia duen C.A. Osasuna Magna klubean aritzea, are gehiago. Ahal dudan gehiena eman nahi dut taldeak beste denboraldi bikain bat egin ahal izateko" adierazi du Bynhok.

Bestalde, talde berdeak denboraldi-aurrea zehaztu du. Nafarroako Kopaz gain, makina bat lagunarteko partida jokaturako dituzte agorriaren 19tik irailaren 2ra bitartean.



Aramendia da junior mailako Euskadiko txapelduna. Igandean, Iturmendin, erlojupeko txapela dago jokoan. YON SUINAGA

Maialen Aramendia Euskadiko txapelduna

TXIRRINDULARITZA Iturmendiarrak larunbatean Tolosako Emakumeen Sari Nagusia irabazi zuen junior mailan, aldi berean Euskadiko Txapelketa zena. Igandean Nafarroako eta Euskadiko Erlojupeko Txapelketa egongo da jokoan, Iturmendin

Maialen Aramendia (CAF Turnkey Engineering) txirrindulariak beste txapel bat lortu du bere palmaresari gehitzeko: Euskadiko junior mailako txapelduna da iturmendiarrak.

Larunbatean Tolosako Emakumeen Sari Nagusia jokatu zen, aldi berean Euskadiko Txapelketa zena. Junior mailan (76 km) bi txirrindulari iritsi ziren,

elkarrekin, helmugara. Esprintean, Maialen Aramendia izan zen lehena (2:17:28), Bizikleta.com taldeko Luisa Ibarrolaren aurretik. Horrela, Euskadiko txapela jantzi zuen Aramendiak. Bestalde, Bolivia taldeko Bakarne Gonzalez altsasuarra 8.a sartu zen, 5 segundora.

Kadeteen mailan Garazi Estevez (Gipuzkoa-Ogiberri) gailen-

du zen, esprintean. Leire Maiza etxarriarra (Nafarroa Ermitagaña) 15.a sailkatu zen, denbora berean, eta CAF Turnkey Engineering taldeko Joana Irastorza etxarriarra 23.a sartu zen (1:51:21). Bukatzeko, afizionatuen elite mailan txapela esprintean erabaki zen eta Bizkaia-Durango taldeko Lourdes Oiartzabek jantzi zuen Euskadiko txapela.

Sopelan bigarrena

Hurrengo egunean, igandean, XXXIII. Sopela Saria jokatu zen, Emakumezkoen Euskaldun Torneorako baliagarria. Juniorretan Sopela taldeko Sara Martin gailendu zen (2:04:29). 3:47ra sartu zen Maialen Aramendia.

Eskolakoak, Olaztin

Kategoria txikiko txirrindulariek bihar, larunbatean, 16:00etan, ginkana eta lasterketa probak izango dituzte Olaztin, Erburua kiroldegaren inguruan.

Iturmendiko Erlojupekoa

Urbasa Txirrindularitza Taldeak antolatuta, V. Iturmendi Trofeoa jokatu da igandean, kadeteen, juniorren, eliteen eta 23 urtez azpikoen erlojupeko proba, gizonezkoena eta emakumezkoena. Proba, aldi berean, Nafarroako eta Euskadiko Txapelketa izango da. Goizeko 09:30ean afizionatuak lehiatuko dira, 23 urtez azpikoak eta eliteak (14 km). Goizeko 10:00etatik aurrera, berriz, jubenilak arituko dira (14 km) eta goizeko 11:00etatik aurrera kadeteak (10 km).

TXIRRINDULARITZA Aznar eta Alberdi Zuiako podiumean

Igandean kadeteen mailako XVIII. Santiago Saria jokatu zen Zuian. Lasterketa gorabeheratsuan, bi txirrindulari batera iritsi ziren helmugara. Esprintean, Basati Bike taldeko Lander Lartitegik irabazi zion Burunda klubeko Quesos Albeniz taldeko Unai Aznarri. 2 segundora Intersport Irabiako Aitor Alberdi eta Igor Arrieta sartu ziren. Iker Mintegi (Q.A.) seigarrena sartu zen, 5 segundora. Beraz, probako Top Hamarrean lau txirrindulari sakandar sailkatu ziren. Gainontzekoei dagokionez, Inhar Astitz (I.I.) 18.a sailkatu zen eta Unai Villalobos (Q.A.) 19.a. Probako talde onena Intersport Irabia izan zen, Quesos Albenizen aurretik.

Bestalde, juniorrek igandean XXI. Aiegiko Udala Trofeoa jokatu zuten, Euskal Herriko Torneorako baliagarria zena. Hirukote bat iritsi zen helmugara, aurreratuta, eta esprintean Andamios Inox-Loiumat taldeko Juan Diego Cardenas gailendu zen (2:07:10). Aralar klubeko Intersport Irabia taldeko Josu Etxeberria 12.a sailkatu zen, 1:15era. Burunda klubeko Quesos Albenizko Ailetz Lasa 20.a izan zen, denbora berean. Juan Riaño (Q.A.) 24.a sailkatu zen, Iñigo Fernandez (Q.A.) 30.a eta Hodei Zia (Q.A.) 63.a.



ARGAZKIJABEAXXXXXXXX

Sakanako Futbol Campusa

FUTBOLA Sakanako Mankomunitateak Ataboren laguntzarekin antolatutako Sakanako Udako Futbol Campusa astelehenean abiatu zen, Altsasuko Dantzaleku futbol zelaian. Lehen txanda honetan, 2005ean, 2006an eta 2007an jaiotako 28 neska-mutiko futboleko trebatzen ari dira, lokin Lobo eta Aitor Lara monitoreen aginduetara. Gaur izango dute azken

eguna. Futbolaren teoria eta praktika uztartu dute, Dantzaleku inguruko paraje ederretan barna korrika egitera ere atera dira eta Donostiako Anoeta futbol zelaira irteera egin dute. Hurrengo astean Udako Futbol Campuseko bigarren txanda izanen da. Astelehene ostiralera bitartean, 2002an, 2003an eta 2004an jaiotako neska-mutikoak arituko dira.

IRISTAKETA Ioseba Fernandez Polonian, Munduko Jokoetan

Europako Iristaketa Txapelketa jokatu berri dira eta atzo Iristaketa Munduko Jokoak hasi ziren, Wroclaw herrian (Polonia). Bertan arituko da Berrero Ere taldeko Ioseba Fernandez iturmendiarrak. Europakoan urrezko bi domina eta zilarrezko bat lortu zituen Fernandezek eta Munduko Jokoean ere urrea lortzeko borrokatuko da iturmendiarrak.

Trailean Iristaketa Mundialak jokatu dira, Txinan, eta Josebarendako txapelketa hau izango da denboraldiko inportanteena. Iturmendiarrak bi urte daramatza eskusiboki bere irristaketa prestakuntza lantzen eta emaitzak bikainak dira.



Beñat Katarain, Collaradako igoeran, Pirinioetako ikuspegi zoragarriez inguratuta. MONRASIN

Katarain txapelduna 2KV Collaradan

MENDI LASTERKETAK Huescako Villanuako Kilometro Bertikal bikoitzean bikain aritu ziren korrikalari sakandarrak: Beñat Katarainek irabazi zuen eta Aritz Munarriz 3.a sailkatu zen. Collaradako igoeran Rubio 6.a izan zen eta Salgado 26.a.

Asteburuan mendi korrikalariaren bilgunea izan da Villanua. Huescako herri eder honek hiru mendi lasterketa hartu ditu asteburuan. Ostiral gauean Güena Nuei gaueko lasterketa jokatu zen (21 km, 1.160 m desnibel +), larunbat goizean Super Traila abiatu zen (63 km, 5.500 m desnibel +) eta igandean 2KV Collarada kilometro bertikal bikoitza (17 km, 2016 m desnibel +).

2KV Collarada kilometro bertikal bikoitzean, Villanuatik (870 m) Collarada mendira (2.886 m) igo eta jaitsi behar ziren korrikalariak. 2.016 metroko desnibel positiboarekin, proba gogorra dela ezin da ukatu.

Proba 126 korrikalarik osatu zuten. Munduko eta Europako txapeldun Luis Alberto Hernandez zegoen parte hartzaileen artean, eta bera zen faboritoetako bat. Baina gure korrikalarietan bikaina egin zuten eta Beñat Katarain lakuntzarra lehena iritsi zen Villanuako helmugara, ikusgarri aritu eta gero (2:14:46).

Igoera bizi-bizia egin zuen Katarainek, 1:32:30ean igo baitzuen Collarada, eta tarte handia hartu zuen. Helmugan ia 4 minutu atera zizkion Raul Criado (2:18:34) bigarrenari. Podiumeko hirugarren eskailerara Aritz Munarriz etxarriarra igo zen (2:25:20). Emakumezkoetan Maider Frailek irabazi zuen (2:43:07). Eta Collaradako asteburuko hiru probak egin zituzten artean, Andres Gomez eta Amaia Larreategi izan ziren irabazleak.

“Lasterketa Luis Albertok irabazi beharko luke, baina lesio-natuta zegoen eta nire estrategia izan zen Collarada ahalik eta azkarrena igotzea, jaitsieran abantaila izateko, bigarrenak oso azkar jaisten duela bainekien” adierazi digu Beñat Katarainek. Eta ongi atera zitzaion. “Gogorra hurrengo eguna izaten da. 2.000 metro jaistea eta azkar. Pentsa!” gaineratzen du lakuntzarrek. Hurrengo erronka zein duen argi du lakuntzarrek: garilaren 30ean Andorran jokatu den Comapedrosa Skyrace (21 km, 2.300 m desnibel +), Munduko Kopako lasterketa. Tartean, Comapedrosa (2.942 m) igo beharko dute korrikalariak.

Rubio seigarrena “Puyar nomas” proban
Egon zen ere 2KV Collarada erdia egiteko aukera, soilik Villanuatik Collarada igotzekoa, “Puyar nomas” deitutakoa (8,5 km). Espainiako Kilometro Bertikalen txapeldun ohi Kiko Navarro espezialista izan zen txapelduna (1:28:26), Ainhoa Lendinezekin batera (1:52:40). Mikel Rubio irurtzundarra seigarrena sailkatu zen (1:38:27) eta Jose Antonio Salgado altsasuarra 26.a sartu zen (2:00:51).

"COLLARADA AHALIK ETA AZKARRENA IGOTZEA IZAN ZEN NIRE ESTRATEGIA, ABANTAILA HARTZEKO"

Mendizale altsasuarrak igandean Bargagainera

MENDIA Altsasuko Mendigoizaleak taldeak Bargagaingo igoera (1.156 m) antolatu du etzi

Ohitura denez, Erkudengo Ama erromeriaren hurrengo igandean Bargagainekeo bidea hartzen dute Altsasuko mendizaleek. Aurreko igandean izan zen Erkudengo erromeria. Beraz, etzi izanen da Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatutako LVI. Bargagaingo Igoera.

09:00etan abiatuko dira

Ohi denez, igandean goizeko 09:00etan jaurtikiko dute suziria, Bargagainera elkarrekin abiatzeko. Alkateak jaurtikiko du, udaletxetik. 09:30ean hamarre-

takoa egingo dute gazteluan, eta behin Bargagainera igota (1.156 m), goizeko 11:00etan meza izanen da. Ondoren, eguerdian, auzatean bilduko dira Bargagainen bildutakoak. Mendizaleen gazta, txorizoa eta urdaiazpikoaz gain, Altsasuko Udalak zilarrezko katiluetan dastatzeko ardo eskainiko du. Zortzikoari ekin baino lehen, bildutakoek talde argakia aterako dute Altsasuko atxilotuei eta auzipetutakoei babesa emateko. Txoko guztiak garbi-garbi utzi ondoren, Altsasura jaitziko dira bazkaltzera.



Ekaitza lehertu baino lehen waterpolo txapelketan aritu ziren. MAIDER IRAGI

Waterpolo txapelketarekin gozatu ederra Irurtzunen

WATERPOLOA Mank-ek antolatu zuen proba. Ostegunean, 17:00etan, kayak jardunaldia izanen da Olaztin

Sakanako Mankomunitateak waterpolo txapelketa antolatu zuen astearte arratsaldean Irurtzongo igerilekuan. Kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak azaldu digunez, aurtengo partaideak aurreko urteetakoak baino gaztetxoagoak ziren. Horrela, taldeen arteko partidak hasi ziren. Bitartean, zerua ilundu zen eta beranduago ekaitza iritsi zen. “Bertan behera utzi behar izan genuen txapelketa, ekaitza zertorrelako, baina ordurako talde guztiak jolasua zuten, gutxienez, partidaren bat. Orduan ogitar-teko gozoa jan genuen eta nes-

ka-mutikoak etxera itzuli ziren, autobusez, ekaitza baretu zenean” gaineratu du Gerrikagoitiak.

Ostegunean kayak Olaztin

Atzera ere kayaketa gozatzeko aukera izango dugu Sakanan. Aurten Olaztiko igerilekuak hartuko du kayak jardunaldia, garilaren 27an, ostegunarekin, 17:00etan. 5 urtetik gorako neska-mutiko guztiak parte hartu ahaliko dute. Ekimena dohainik da, baina aurretik izena eman beharra dago (Mank-eko Kirol Zerbitzua, 948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.eus).



zatoz gurekin
kostaldera





Lur eta Luisillo Berriaren aldeko Sakanako Hotsak kontzertuan.

L eta L. Lur eta Luisilloren aurreneko kontzertua

Olatzeako Hotsak zikloaren barruan ariko da bikotea asteazkenean, 21:30ean, udalak antolatuta

ARBIZU


Musikari bikote etxarriarrak jendaurrean emanen duen aurreneko kontzertua izanen da asteazkenean Arbizun eskainiko duena. Aurretik makina bat ekitaldi eta omenalditan aritu dira zenbait kantu jotzen. Baina Arbizukoa izanen da Lur Larrazak eta Luis Kintanak prestatzen duten lehen emanaldia. Haiek sortutako kantuak eta Euskal Herriko eta atzerriko sortzaileen bertsoez osatutako errepertorioa eskainiko dute. Akustikoan. Lurrek gitarra joko du, Luisillok baxua.

Larrazak azaldu digunez, “al-karrek urtiak yamaten ttugu jotzen”. Kultur etxeko musikarien lokalean bat egin zuten eta “gustora aitzen” direla esan digu. Kantu propioen sorreraz galdetuta, Larrazak azaldu digunez, “bakoitzak be harrikada yamaten diau eta biyek batia

jotzeko landu eitten diau”. Beti ere, formatu akustikoan jotzeko aproposak diren doinuak izaten dira euren kantuen abiapuntua. Arbizuko kontzertuaren ondoren biek elkarrekin kontzertu gehiago joko dituztela ziur da Larrazak, eta horretarako euren kantu propio gehiago sortuko dituztela ere.

Bi etxarriarrak eskarmentu handiko musikariak dira. Luisillo gaur egun Vendettan dabil. Lur, berriz, Bety Traban taldean ari da, besteak beste.

Olatzeako Hotsak musika zikloa ostiralean abiatu zuen Ta Lauen laukote sakandarrak. Zikloko bigarren emanaldia da etxarriarena. Hura Ander Garzia, Mikel Garzia eta Joan Flores arbizuarren emanaldi akustikoak itxiko du iraillean. Emanaldi guztiak Arbizuko Olatzea hotelaren kanpoko aldean izanen dira.



Altsasuko Festak kartela.



Altsasuko Jiganteak kartela.



Festak 2.0 kartela.

Altsasuko festen kartela, hiru aukeren artean

Altsasuarrek hiru lan finalistetako baten aldeko botoa eman dezakete astelehenera arte. Horretarako lortia kultur gunetik pasa eta botoa eman daiteke, www.altsasu.net web orrian sartu edo 012 doako telefonora hots egin daiteke.

ALTSASU

Altsasuko Udaleko Kultura Zerbitzuak izendatutako epaimahaiak bere lana egin du eta lehiaketara aurkeztutako proposamen guztien artean hiru finalista aukeratu ditu. Herriko festak iragarriko dituen kartela zein izanen den aukeratzea orain altsasuarrei dagokie, karteletako baten aldeko botoa emateko aukera baitute. Beti ere, 16 urtetik gora badituzte eta herrian erroldatuta badaude. Jakina, pertsona bakoitzeko boto bakarra onartzen da.

Bozketan parte hartzeko, udalak hiru aukera eskaintzen ditu. Alde batetik, Iortia kultur gunetik pasatzea, 10:00etatik

14:00etara. Bestea www.altsasu.net web orriaren bidez botoa ematea eta, azkenik, 012 doako telefonora hots egitea (08:00etatik 19:00etara) eta aukeretako baten alde egitea. Hautatutako kartelaren egileak 600 euroko saria irabaziko du.

Altsasuko festetako kartela aukeratzeko lehiaketara 64 lan aurkeztu dira aurten. Helduen mailan 11 lan izan dira lehiatu direnak eta haurren mailan, berriz, 53. Altsasuko lehiaketara aurkeztutako lan guztiak agorrilaren 28tik irailaren 10era Iortia kultur gunean ikusgai izanen dira. Aurten Altsasun festak irailaren 13an hasi eta 17an despidituko dira.



Altsasuko gazteak, kalejiran.



kate-begi
bihur
zaitez

bazkide
egin





Juan Manuel Esteban Irurtzongo irakurle taldeko kideei liburuak sinatzen. UTZITAKOA

Baskoien istorio bat, Estebanen liburuan

Juan Manuel Esteban idazlea *Tras la pared* (2017, Editorial Círculo Rojo) nobelarekin aurkeztu da literaturaren plazara. Irurtzundarrak estreinakoan erromatarrekin elkarbitzen ziren baskoien bizitza eta ikuskera posible bat islatu nahi izan du

IRURTZUN

Nobela historikoa dela zehaztu digu hasteko. Erromatar Inperioren azken unean kokatu ditu hainbat istorio, bandaloak iristear zeudela. Denboraren kapsula moduko bat da eleberraren abiapuntua. Etxebizitza baten zaharberitze prozesuan, "kasualitatez" paretako zulo batean papiro-biribilki batzuk

agertzen dira. Gaur egunera arte egoera ezin hobean iritsi diren papiro horietan Baskoniako herriarrek euren bizimoduaren berri ematen dute: euren mundu ikuskera, euren mitoak, erromatarrekin dituzten gatazkak, kristautasunaren agerpena... Guztia esan bezala, bandaloen inbasioaren aurretik eta, papiro-biribilkiak gordetzearena.

Estebanek azaldu digunez, gai nagusia baskoien eta erromatarren arteko harremana da. "Ez dira beti onak izan". Beti ere, "benetako testuinguru batean kokatuta", liburuan benetako istorioak eta fantastikoak nahastu dituela jakinarazi digu irurtzundarrak. "Asko asmatu dut ere. Erromatarrei buruzko dokumentazioa badago. Baskoiei

buruz ez dago ia ezer". Salbuespena hilobietan opatutako azarnak liriatekeela esan digu Estebanek. "Baina horretaz aparte ez dakigu ezer euren pentsamenduaz, mundu-ikuskerez... eta hori asmatu egin dut". Egungo jendea erromatarren garai harrekin alderatuta "agian ez dago dena aldatuta. Gure beldurak, gure esperantzak... agian ez dira guztiz aldatu". Jarraipen bat dagoela, alegia.

Azalduetako guztiagatik pertsonaia historikoak ere ageri dira *Tras la pared* liburuan: Prisciliano gotzaina, Oiartzunen opatutako garai hartako izen bat, Juliano enperadorea... Esaterako, azken horren Pertiako kanpainari buruzko asmatutako interpretazioa ematen du liburuan Estebanek. Irurtzundarrak liburua idazteko Amiano Marcelino, Plutarco edota Macrobio historialari eta idazle erromatarrek irakurri ditu, "ereduak izateko; nola idatzi eta zer estilo..." Aipatutako istorioak kontatzeko hainbat genero erabili ditu Estebanek nobela historikoa ontzeko: pasarteak, poesia, elkarrizketak... "Elkarrizketa filosofikoen adibide asko ditugu Platonetik Macrobiara arte".

Zaletasunaz

Idazleak esan digunez, "liburu batekin jaio" zen. EHUen enpresa-ikasketak egin zituen eta georago UNEDen filosofia. "Beti irakurri dut. Nobelak ez zaizkit asko gustatzen. Filosofia, poesia, poesia erromantikoa eta genero fantastikoa gustatzen zaizkit". Estebanek esan digunez, "beti saiatu naiz irakurtzen eta idazten. Ez da salto bat. Irakurtzea gustatzen bazaizu... Zirriborroak, eskemak egiten dituzu". Juan Manuel Estebanek gaineratu

duenez, "beste kontu bat da zentzua duen multzo bat egitea".

Gazte zela, 20 urterekin edo, aldizkari batean artikuluak argitaratu zituen Estebanek. Literatura sariak ere irabazi ditu. Beti zerbait egin izan du, baina apirila akaberran argitaratu zen liburua du aurrenekoa. Duela sei urte sortutako ideia baten gauzatzea dela ere azaldu digu. "Istorio polita izan zitekeela pentsatu nuen".

Irurtzundarrak argitu digunez, "liburua auto-edizioa da. Círculo Rojo enpresarekin harremanetan jarri nintzen, zuk ordaintzen duzu eta eskatutako liburuak bidaltzen dizkizute. Halako gehiago badaude". Pozik dago edizioarekin. Irakurleen aldetik denetariko iritziak jaso ditu. Irurtzongo irakurle taldeko kideekin ere garagartzaroaren 8an iritziak partekatzeo aukera izan zuen. "Iritzi guztiak onak dira, nahiz eta onak ez izan. Iritzi zintzoek hobetzen laguntzen zaituzte. Ni horrekin gelditzen naiz".

Liburu bat esku artean izanda berririk etorriko den galdetu eta "momentuz, ez" erantzun du Estebanek. "Ipuin batzuk ditut, baina nire asmoa ez da argitaratzea". Idazten "beti" jarraituko duela gaineratu du, "publikatzea beste gauza bat da". Bitartean, liburua FNAC-en web orrian edo hari Facebook (*Tras la pared* novela) bidez eskatuta eskuratu daiteke.

LIBURUAREN GAI NAGUSIA BASKOIEN ETA ERROMATARREN ARTEKO HARREMAN "EZ BETI ONA" DA

Bazkide! dastatu uda guaixerekin

Galdera: Zein izan zen sakandar bakoitzak batz beste 2016an sortu zuen hondakin kilo kopurua?

Erantzuna:.....

-Zure bazkide zenbakia:

Erantzuna idatzi eta paperak bulegora ekarri edo idatzi erantzuna publi@guaxe.eus edo publizitatea@guaxe.eus helbidera zure datu guztiekin, udako bazkide lehiaketa gaia aipatuz. Zozketa eguna uztailak 24 Guaixeko bulegoan.

SARIAK: Iru-bide, Arkangoa, Dantzaleku, Biltoki, Olatzea, Arruazuko Ostatua, Lakuntzako Ostatua, Clinker eta Kaluxa jatetxeetan bi lagunentzako bazkaria.



“Arraunlaria naizela esatean, sakandarrek aurpegi arraroa jartzen didate”

Urtero bezala, udarekin batera hasi da Eusko Label Liga, arraunaren munduko txapelketa nagusia. Bertan ordezkari bat dauka Sakanak: Ibai Gonzalez, 24 urteko urritzolarra. Duela hiru urte hasi zen arraunkadak ematen, Pasai San Pedroko arraun taldean, eta pixkanaka tokia ari da egiten Libia traineruan.

Eñaut Agirrenbengoa Apaolaza
URRITZOLA

1 Sakandar bat eliteko arraunean. Bitxia. Nola eta noiz hasi zinen?

Askotan egiten didate galdera. Markinako festetan egon nintzen duela urte batzuk, eta taberna bateko telebistan estropada zegoela ikusi nuen. Une horretan, zerbait mugitu zitzaidan barruan. Lehengusua Hernanin aritua zen arraunean, eta berak San Pedroko jendea ezagutzen zuen. Aipatu zidan bi traineru zituztela, eta aukera izan nezakeela formazioko traineruan sartzeko. Hala sartu nintzen arraunaren munduan, duela hiru urte.

2 Joan zen urtean egin zenuen debuta San Pedronen traineru nagusian. Nola iritsi zen aukera?

Bigarren traineruan arraunaren oinarriko gauzak joan nintzen barneratzen, arrauna zer den ikasten, eta asko estutu nuen arraunarekin nuen harremana. Bertan hasi nintzen arraunlari bihurtzen. Arraunlari batzuk taldetik joan ziren iragan denboraldian, eta, orduan, entrenatzaileak traineru nagusian aritzeko aukera eskaini zidan.



Ibai Gonzalez, San Pedroko arraunlaria EÑAUT AGIRRENBENGOA APAOLAZA

3 Zuretzat gauza handia izango zen A traineruan debutatzea...

Bai. Urduritasun handiz bizi izan nuen. Eusko Label Ligako estropadetak parafernalia berria zen niretzat: kamerak, megafonoak, helikopteroa... Ordu-ra arte halakorik zuzenean ikusi gabea nintzen. Zierbenako estropadan egin nuen debuta. Nekatu ederra hartu nuen, baina ondo joan zen. Ondoren, beste bi bandera jokatu nituen, Portugaletekoa eta Hondarribi-

koa, eta asko gozatu nuen. Gehiagotan aritzeko gogoz gelditu nintzen.

4 Beteranoak dira nagusi San Pedron. Zuk, ordea, 24 urte dituzu oraindik. Zaila da tokia egitea?

Beteranoek pisu handia dute traineruan. Urte asko daramate arraunean, eta esperientzia handia dute. Trainerua sentitzen dute. Badakite zer gertatzen den une bakoitzean, eta zer egin behar den azkarrago joateko.

Nik oraindik ez dut garatu sen hori. Zentzu horretan, zaila izan daiteke lekua egitea. Uste dut traineru batean beharrezkoa dela jende beteranoa egotea, batik bat gazteei erakusteko zer den arrauna.

5 Zer moduz zabilta aurtengo denboraldian?

Oso gogotsu nago. Liga hasi aurreko hilabeteak oso luzeak egiten zaizkigu arraunlari, eta ahalik eta gehien parte hartzeko gogo handia dut. Orain arte, igandeetako estropadetan aritu naiz: Portugaletekoa, Donostiakoa eta Areskoan. Aukerak ari naiz izaten, eta oso pozik nago. Ordezkoa naiz, hori garbi dut, eta entrenatzaileak traineruan igotzeko esaten didanean, gustura asko aritzen naiz.

6 Azken urteetan mailari eustea izan duzue helburu. Aurten ere jomuga bera duzue?

Momentuz, helburu berbera dugu: atzetik bi talde uztea, eta estutasunik gabe arraun egitea. Maila ikaragarria dago Eusko Label Ligan, eta traineru gehiago daude sartuta erdiko maila horretako borrokan. Azken bi postuak atzean uztea da lehenengo gauza, eta, hortik aurrera, joango gara ikusten zer ematen digun estropada bakoitzak.

7 Posible ikusten duzu bandera bat irabaztea?

Arrebak maiz galdetzen dit hori. Nik aurrekoan erantzun nion bandera bat irabaztea, futboleko Txapeldunen Liga irabaztearen antzekoa dela. Guretako oso zaila da halako zerbait lortzea. Ezustekoak beti gerta daitezke, baina badakigu goiko taldeek

maila oso handia dutela. Bander bat irabazten badugu, ba primeran, baina horrek ez gaitu itsutzen. Gure helburuak beste batzuk dira.

8 Hitz gutxitan, nola definituko zenuke Libia trainerua?

Beti dut sentsazio bera: pirata talde bat gara. Jende desberdina gaude, nor bere ezaugarri eta berezitasunekin, baina talde oso egonkorra dugu. Giro oso ona arnasten da taldean.

9 Posible al da arraunetik bizitzea?

Nire kasuan ez, eta San Pedroko beste arraunlarien kasuan ere ez. Eta ligako gainontzeko taldeetan ere antzeko erantzuna emango lizukete. Eliteko exigentzia maila dauka arraunak, baina kanpoko egitura ez da profesionala. Oso zaila da soilik arraunetik bizitzea.

10 Egun Pasaian bizi zara, baina Urritzolakoa zara izatez. Maiz itzultzen zara etxera?

Normalean astearteetan hartzen dugu atsedean, eta batzuetan etxera itzultzeko aprobetxatzen dut. Neguan atsedean luzeagoak izaten dira, eta denbora gehiago ematen dut Urritzolan. Entrenamenduak Arbizun egiten ditut.

11 Arraunaren enbaxadorea izan zaitezke Sakanan. Gorpuzkera aldetik, bailaran badago jendea arraunerako balio lezakeenik.

(Kar kar). Arraunlaria naizela esatean, sakandarrek aurpegi arraroa jartzen didate. “Hori zer da, Kontxan egiten dutena?” diote. Normala da arrauna hemen sustraiturik ez egotea. Azkenean, egunerokotasunean ikusten duzuna jarraitzen duzu.

Irakurle berriak freskatzeko ideiak

gk
KOMUNIKAZIOA

Gorretan

Uztailaren 28tik abuztuaren 28ra